

ECHETATAR JOSE MANUEL

Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan

ETA

URIKO A

EUSKAL-ESNALEA ipui oek argi-
taratzen arī zala, il zan Echeita
jauna. ;Izan bedi ipuien argital-
bena, Echeita'rī EUSKAL-ESNA-
LEA'k eskeñitako azken-oroiopena!

DONOSTIAN
MARTÍN, MENA Y C.^aREN ECHEAN

1915

H - 280A4
R - 16143

ATV 10.842

ECHETATAR JOSE MANUEL

Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan

ETA


URIKO A

EUSKAL-ESNALEA ipui oek argi-
taratzen ari zala, it zan Echeita
jauna. Izan bedi ipuien argital-
bena, Echeita'ri EUSKAL-ESNA-
LEA'k eskeñitako azken-oroiopena!

DONOSTIAN
MARTÍN, MENA Y C.[°]REN ECHEAN

1915

ZIŅISTUTEN DOT JAUNGOIKOA'GAN



Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan

Creo en Dios izenaz Trueba'k erderaz idatzi zuan ipuiaren euskeralbena da ipui au. Lendabiziko saria irabazi zuan, *Euskalerriaren alde*'k 1914'n egindako batzaldian.

I

Oraindiño begiak negarrez bustirik eta biotzikara atsegintzua nebala, ogei urteko urrende ondoren, gurasoen echera eldu nintzorian, ichi neban jayotechea 1859'g. urteko Agorra'ren arratzalde baten, eta jarraitu neban, Enkartaziño ospetzuko gauzak beze-la, niretzat gomuta atsegingarriz betea dan urreko zelai batera.

Zelai orretan dago Birjiña Atsegingarrria'ri opalduriko baseliza, ta eliz onek eba-zan niretzat gomutagarri dontzuak, nire amak atsegiñak idoroten ebazalako atsekabietan;

bein baño sarriago eroan ninduan eskutik Birjiñea dagon elizmayaren oñetarà, ta nik ikusirik ume bat besuetan ebala. Deuna zalako baño geyago maítetzen neban ama zalako; bada, oraindiño enebazan ulertzen erlejiñoaren eskutapenak.

Nik nai nebazan birbiztu arek gomuta dontzuak eta agertu eskerrak Jaungoikoa'ren Ama'ri eliz apal atan; bada, uste neban bere bitartekotasunak biurtu ninduala gurasoen-echean jesartera ta bateatu ninduen elizan belaunikotutera.

Estot nai argitaratu emen nire biotzari jazo yakona baselizara sarreran eta belaunak jarri nebazanean amak ainbat bidar jarri ebazan tokian negarrez ta atsegintzu, ziñiskintza garbiz; bada, biotzikara onek idatzita dagoz, bear-bada, argitaratuko eztan idazti baten (1).

Baselizea, nik ichi nebanean baño zuria-go, garbiago, apainduago ta gazteago egoan.

Otoitzak ordubetean elizmayaren aurrean

(1) 1899'g. urtean argitaratu zan «Libro de los recuerdos» derichon idaztia.

egin nebazanean, Jaungoikoa'zko buruerak, gaztetako oroipenakaz nastauta, urten nintzan elizpera, ta arri baten ganian jesarrifa idoro neban, gizon zarkote, elizara sartzena lagundu eustana.

Illunak ziran nik neukazan oroipenak gauza ta gizadiatzaz, ta neukan illuntasun ori argitzeko gogo betea; bada, eztot iñoz jakingo, Jaungoiko maitea, azaltzen, jayoterrira biurtu nintzanean neukan naibagea, ikusirik neure burua ezezagunen artean: eneban ezaututen gizadia, zelayaren tayua gogapenean aldatu bage eukiarren.

Arratzalde baten, neure baserrira eldu nintzanean, ikusirik neure burua ozte ezezagunakaz inguratuta, negar malkoak dariodazala jarri nintzan.

— ¿Zer dozuene semea? — itandu eustan aitak, ezautu ebalako, malkoak, itzaltasunak baño naibageak indartzuago sortu eustazala.

— ¿Nun dagoz, neure Jaungoikoa, nik emen ichi nebazan guztiak?

Ta nire aitak, eun oinkada bidean, elizeari kerizpea emoten eutsen zugatz orritzuen azpian egoan iltegia erakutzita, neure burua



... ta arri baten ganian jesarrīta idoro neban,
gizon zarkote...

bere bular ganean estututa, negar malko bat
buruaren ganera erionda, erantzun eustan:

—¡Anche dagoz, ene semechoa!...

Negartzu jiran ziran nire begiak, eta aita
gašoak naibagea irribarreaz ibitú nairik,
aringo esan eustan:

—¡Zer, seme! ¿zu-be ete zara ingian
gauza bat eta aragi ta azurretan beste bat
diranalakoa? Aurrerago egindako *Cuentos
de color de rosa*'k esan euskun nai zenduala
bizi-izatea Jaungoikoa'k agindu daben be-
zela, ta ezta ondo orain zatozala guzurtuta
istera.

—Aita, ¡zuzen zagoz!--erantzun neutsan
—baña, ipuin orri neure biotzaren ardurea
emon neutsanetik, naibage ta uskeri askok
ekarri dabez arnasgea]nire bularrera ta itzal-
tasuna nire arimara.

—Seme, ¡zorionekoak ziñistuten dabenak
eta negar egiten dabenak!

Neure biotzaren barru-barrutik emon
neutsazan eskerrak Jaungoikoa'ri, ipiñi nin-
dualako negar egiten dabenen eta ziñiskin-
tzea daukenen artean, eta nire egiteak eztabe
bastertu arimea.

Barriro argitu nairik urrundeaz illunduta nebazan zelayetako oroipenak, jesarri nintzan agurearen ondoan eta, .

— ¿Nor bizi da eche orretan? — itandu neutsan erakutzita baselizearen aurrean egoan anchiñako eche andi eder bat.

— Bizi-da Diego de Salcedo.

— ¿Salcedo? Ni gaztea nintzanean, abizen ori eukenak, emen, beste eche onetan bizi-izan ziran. Esan nai dodan eche andia-ren ondoan dagona-da.

— Egia diñozu — erantzun eustan agureak — eta Diego eche nagozira aldatzeak daukan edestia argitaldu ezkero jazoera guztiakaz, balioko leuke zuek idatzigilliok argitaltzen dozuezanen gaña.

— ¿Ta badakizu?

— Aita gurea bezela.

— ¡Guztiz poztuko naz agertzen badeustazu!

— Bada, agertuko deutsut Jaungoikoa'k aditzen emoten deustan bezela; baña ichi dazu lenengo elizara sartzen, Birjiñea'ren argi-ontzira orioa bota dagidan amata nairik dago-ta. Andre zaintzalleak amatata ikusiko

baleu, uste izango leuke amatako dala bere echeko argi-ontzi zoriontzua-be.

— ¿Ain ondo zaintzen dau elizea andre orrek?

— Guztiz ondo, gichi-da esan leikean guztia; zegaitiak daukaz orretarako.

— ¡Zer! ¿Beste edesti bat daukagu?

— Ez jauna; Diego'ren eta andre orren edestiak bat dira, orain ikusiko dozuzan bezela.

Agurea sartu zan elizara argi-ontzia atontzera, ta gero ichi eban atea ta jesarri zan nire ondoan.

Emon neutsan Habana'ko *zigarro* eder bat edestija agertuko eustanari, bistu neban neuretzat beste bat, eta keiten esalea ta entzulea, agertu eban lenengoak eta entzun eban bigarrenak, irakurleak ondoren irakurriko dauna.

II

— Juan de Salzedo ta bere emaste Agustiña nire adizkideak ziran.

Ni bizi-izan nintzan an goyan aritz-arteau

ikusten dozun echean, eta jai-egunetan, mesatara niñoyanean, Juan eta emasteak, euren lagun artzen ninduen illuntzerarte; bada, euren atsegin gozatzuena izaten zan, nik eurakaz eta seme Diego'gaz baskaltzea.

Juan gašua iltzanean, bere emaste ta seme Diego'k, euken, ni eurakaz aurkitzeko len baño gogo geyago; bada, itzaltasuna dагonean, adizkide zintzoakaz inguratuta ego-tea izaten-da edozeiñen guraria.

Diego'k, aita iltzanean, amasei urteko mutilla izanarren, okerkeriak bakarrik egiten ebazan; baña, ikusirik ama maſtiak ezeukala bera baño beste egaperik ez laguntasunik, asi zan gogotzu lanean, eta egikorra jarri zalako, uztak etziran gichitu, ta sendiak eu-kan len bezela bizi-izateko bear ebana.

Agustiña errukarria, zoraturik egoan berre semeaz, ta ikusten ninduan guztian, negar gozatzuaz, esaten eustan:

—¡Ai Antonio! ¡Zein seme ona emon deust Jaungoikoa'k! Nire senar zeruan dagonak, burua jazo, ta ikusiko balitu semearen egite goragarriak, nik bezela negar gozatzuak egingo lituke. Etzan izan uskeria,

Jaungoikoa'k, Juan eroan ebanean, nik Birjiña Atsegigarri Doatzua'ri egin neutsan eskabidea, egin eyela semea aita izan zan bezela, ona ta egikorra.

¿Ikusten dozu Salzedo'ren echeak baratzaren ganean daukan ikustoki ederra? Orain jausten yuakaz orriak mastiari; baña, udan orritzu dagonean, Eguzkia'ren argi-izpia-be ezta sartzen toki atan.

An, kerizpe atsegintzu atan, eguberdiorduko ichasoko aizea, loraen usain gozoak ostutera baketzu eltzen dan tokian, ipinten eban maya Agustiña'k, eurakaz batera jan bear nebanean.

Jan eta barriketa ta alaialdi ostean, Agustiña'k echeko lanak egiten ebazan iruretan eskariak egitera juan-orduko; bada, jai-egun guztietan, egiten zan agurtzea baselizan, ta Diego ta ni jasten giñan baratzera ibiltaldi batzuk egitera agurtza-ordurarte, ta bitarte orretan artzen genduzan, emen lora bat, an keriña batzuk, arago okaranak eta beste aldean *melokotoyak*.

Nire gogoa zan baratzean ibiltaldiak egitea; baña, Diego'k nik baño gogo geyago

eukan orretarako, ta bein baño geyagotan usmau neban, Agustiña'k irribarrea egiten ebala, semea baratzera jatzi nairik artega ikusten ebanean.

Eche nagusian bizi-izan zan Errepail erichon zaldun bat, bere alaba Asension, amabost edo amasei urte ebazanaz.

Errapail jauna, umia zanean, aldendu zan Enkartaziño'tik eta Parantzea'n, edo eztakit nun, ogei urte igarota agertu zan aberatz, esaten ebala eche nagosian bizi-izango zala illarte, eche ori zalako gurasoen ta beraren jayotechea.

Anchiñacho il ziran Errepail'en gurasoak.

Echeratuta illebete batzuk igazi ziranean, ezkondu zan Errepail jauna ondasunik ezeukan neskatilla galant eta onbidetzu bategaz; baña, emaste errukarri au iltzan lenengo umea jayotzean, eta Errepail jauna gelditu zan jayo zan umeaz, beste sendi bage.

Asension erichon umeari, ta azi zan ume ederra, eskerrak Agustiña'ri, egun aretan kendu eutsalako bularra seme Diego'ri ta emoten eutsalako Asension'i, arduraz ta alaitzu, bere semea asten ebanean lez.

Errepail etzan gizon charra; baña, *erle-jiñotzaz* ebazan buruera okerrak; ¡Jaungoikoa'k parkatu izango deutsaz! Uste dot, beartzuakaz aserre bazan; umien adizkide ezpazan; nai ezpaebazan Jaungoikoa'k emoten eutsazan lanak; poztuten ezpazan basoak orritzu ta lorategiak loratzu ikustearaz; biotzak erakusten ezpaeutsan zerbait, barre edo negar egiteko, alai edo itzaltzu egoteko, Jaungoikoa'gan ziñistuten dogunoi jazoten yakun bezela, uste dot ezebala ziñistuten Jaungoikoa'gan.

—¡O! ¡zein zoricharrekoa izan zan gizon ori! —esan neban, agurea, ori esatera eldu zanean.

—Bai, guztiz zoricharrekoa zan—jarraitu eban onek.

Emen izenorde deitzen eutsen Judio; baña; judioak zori obekoak dira; bada, ziñiskera okerra izanaren, ziñiskerea dauke, ta Errepail gaxuak eztau ezer ziñistuten.

—¿Baña ezeban ziñistuten Jaungoikoa'gan? ¿ezetan bez?

—Ichi dazu agertzen beragaz egun baten

izan neban berbetea, ta esan ebazan berbakandik jakingo dozu ebazan buruerak.

Birjiña Atsegigarria'ren jaya zan, eta au zelai guztiau *erromeriara* eterren gizadiz betea egoan.

Baselizeak urrezkoa zirudian eukazan argiagaz, ta ganera, lorategi ederra, lorakaz apaindurik egozalako elizmai ta enparauak.

Ni, ekanduta nengoan lez, Agustiña'ren echean gelditu nintzan baskaltzera, ta beti bezela, baskal-ostean jatzi giñan Diego ta ni baratzera ibiltaldi bat egitera.

Eche nagosiaren eta Salzedo'rena izan zanaren bitartea, egoan aldebituta egur-tantayakaz; eche nagosiaren aldeko atala zan Errepail jaunarena, ta Salzedo'ren eche-aldekoa Agustiña'rena.

Errepail jauna ta Asensicho (onela deitzen eutsen alabeari), geugaz batera jasten ziran baratzera baskal-ostean ibiltaldi bat egitera, ta etzan igaroten arratzalderik, Diego'k, bular-arrebeari opariren bat, lora edo zerbait emoten ezeutzanik, eta neskachoak, alaitzu zerbaitegaz erantzuten eutsan.

Origaitik, Agustiña irribarrez egoten zan,

Diego baratzera juateko gurariz artega jar-
ten zanean.

Errepail jaunak *tabako* ederra ekarten
eban, dirua eukan Bilbo'ko salerosle-echera,
illeka irabazia artzera juaten zanean; eta ni
tabako zalea nintzala ekielako, ikusten nin-
duanean esaten eustan:

— Antonio ȝeztozu nai pipakada bat? Ja-
kizu emen eztagola olako *tabakorik*.

— ¡Eztot nai izango Errepail jauna!—
erantzuten neutzan. *Zigarroa* edo *pipea* ta
keitea nai eztauzañ spañarra ezta spañar
legezkoa.

Ta gu, *tabakoa* alakoa edo olakoa zala,
eztabadaka gengozan artean, Diego ta Asen-
sicho juazan albobidetik alort eta lorategia-
tzaz berbetan, eta barrezka zoroak bezela.

Atsegingarri egunean, Errepail jaunak
ezeban nai eskiñi pipa bete tabako bakarrik.

— Igo zaiteze echera — esan euskun—
edontzi bete ardao gozo edatera, ezbai bage,
Jesus'ek Lazaro'ri biztuteko emon eutsan-
lakoa.

Egia esateko eninduan poztu barrintze
orreka, eta gichiago Errepail'ek esanda;

baña, Diego'k eta nik alaitzu erantzun genduan:

—Guazan bada; ezta charto etorriko echean edan dogun chakoliñaren ganera.

Guztiok igo giñan eche nagosira, baratz aldetik, Salzedo'ren echeak lez eukan mllandicho batetik. Asensicho'k, guztiz pozet, bere echean ikusi genduzanean, berak ekarri euskun bakochari, ardao gozoa euken edontziak, ta edan ziranean, juan giñan laurok sapallora, andik erromeria ikustera.

Eche nagosiaren sapalloa, aurrez-aur dago lako, ikusten genduan elizmaya, baselizan barruan dagonak bezela.

Emakume ta gizon guztiak, otoitz egiten eben Birjiñea egoan elizmayaren oñetan, eta gero urteten ziran alaitzu ta atzegintzu biotza, ta begiak negartzu ebezala.

Diego'k eta nik gogo-beroz begiratzen geuntzen kristiñau aren ziñiskintza zintzoari, ta Errepail jaunak, isillik egonarren, irribarre gogoikarriak egiten ebazan aren eta gure irrigarri.

Emakume bat eldu zan elizpera guztiz negartzu, ta ikusirik barrura ezin sartu zala,

belaunbikotú zan eliz-atean, ta besoak Bir-jiñea'gana luzatuta esan eutsan indarrez:

— ¡Ama errukigarria, gaizkatušu nire alaba biotzekoa!

Diego ta niri bertatik erion yakuzan negar malkoak, berba orrek entzun genduza-nean; bada, ain andia zan emakume orren atsekabea.

Asensicho, barrekari jarri zan, Diego'ren biotzikarea ikusi ebanean.

— ¡Alde, judia ori!—esan eutsan Diego'k gogo onez.—¿Etzara ikaratzen ori ikusita?

— Ez; enabelako ikaratzen erakutzi larrregiak—erantzun eban Asensicho'k.

Neskacho batek, berba orrek erantzutea, ondo ulertzen ezebazan gauzetan, errukarria erechi yatan; baña, erlejiñoaren aurrezka dagonak min egiten deustalako, erantzupen orrek, amorrū gogorra emon eustan, eta agirraka egin neutzan Asensicho'ri.

— Nire alabeak--erantzun eustan Errepail jaunak, guztiz aserre—ondo egiten dau ez ziñistitutea zuek ziñistuten dozuezan uskeriak.

— Errepail jauna, guskeria uste dozu dala Jaungoikoa'gan ziñistutea?

— ¡Ze Jaungoiko ta ze kalabasa! Eztago Jaungoiko ez Santa Maria'rik, iñori charto ez egitia ta aldan guztian ondo egitzialakorik. Au ezta izango erlejiñoa, baña, bai erabagi onbidetzua, ta berau da naiko ta geyegi.

— Erlejiñoa onbidetzua-da.

— Naiko-da onbidea, ta ezta bear erlejiñoa.

— Zuzen dago nire aita—esan eban alabeak.

— Zuk ez ziñistutea Jaungoikoa'gan, ezta miraria; baña Asensicho'k... jarritzen nau ta minduten nau!—esan neban.

— ¡Zer bada! ¿Uste izan dozue, alaba neureari irakatziko neutzazala emen ikasten diran zorginkeriak eta tentelkeriak? Parantzeraz baleki, poztuko nintzake, ikasi dagizan buruz or daukadazan idazti guztiak; batez-bere Voltaire'nak; bada, nik oni jarraitzen deutsat.

— Baña, Errepail jauna, guskeria uste dozu zoriona dakartzazula mundu onetan zeure ala-

beari, beste munduko icharopen atsegingga-rria kendu ezkero?

— ¡A zure besteko icharopena!

— ¡Jesus! — esan eban Diego'k neskachoa'ri begiratuta. — ¡Zure aitak uste dau guztia amaitzen dala illezkero.

— Ta neuk-be oriše uste dot — erantzun eban Asensicho'k.

Onetan egozanean, entzun zan baselizako ezkilla soñua, iragarten ebala, otoitzak asten zirala, ta Diego'k eta nik amaitu genduzan besteakaz geunkazan eztabadak, eta jatzi giñan agurtzea abestutera; bada, arratzalde atan, agurtzea abestu bear zan, dambolin eta chilibituak lagunduta.

— Bada ni — esan euskun Errepail'ek — noa aldicho baten, Voltaire irakurtera, neur Ebanjelioa dalako.

Guk ezkenkien nor zan Voltaire; baña, gogoratzen genduzan Ebanjelio arek irakatziko ebazan egiak.

Baselizara giñoazanean, urrunduten zan, alabearen gaizkatzea eskatzen eban emakumea, ta guztiz atsegintzu egoan Birjiñea'k lagunduko eutsala uste ebalako. Gelditu zan

eche-nagosiko sapallopean Asensicho'ri agur egiteko.

— ¡Zer! ¿Makalik daukazu alabea? — itan-
du eutsan neskatoak.

— ¡Ai, bai! Ain makal ze, sendagilleak
esan deust Jaungoikoa'gandik bakarrik icha-
ron dagidala gaizkatzea.

— Orduan, alaba barik geldituko zara,
ni ama barik gelditu nintzan lez.

Asensicho'ren inpernutar uar lotsagaiz-
toko au, etzan naiko izan ama gaišo aren
ziñiskerea bastertzeko; bada, icharopen be-
teaz echeratu zan.

III

— ¿Zer uste dozu Errepail'en buruera ta
alabeari irakatzi eutsazanak, erlejiñoatzaz?

— ¡Zer uste izango dot! Deungekerian
eroango dabela zigorketea orrek zorigaizto-
kuok. Jaungoikoa'gan ziñistuten eztabenak,
mundu onetan edo bestean, garesti ordaindu
bearko dau ziñisgetasun ori.

— Egia diñozu; bada, mundu au ichi-or-
duko artzen doguz ziñiskintzearen bigunta-

sunak dakarskuzan atsegīñak. Ekaitzak estaltzen gaituzanean, nik eztaukat oñastarriaren bildurrik, bitarteko daukadan Birjiña Deuna'ren izena aboan darabildalako, ta bere laguntasuna ziñistuten dodalako.

Nire aide ta adizkideak Jaungoikoa'ren egapera doazanean, nire arimea atsegintzen da, uste dodalako ikusten nabela ta entzuten deustezala neure berbak; eta egunen baten egazka juango nazala eurakana beti alkarregaz izateko.

Jaungoikoa'k laguntzen deust alde guztietan; ikusten dauz nire naibage ta alaitasunak, eta jakintza, zuzustuna ta guztialdabena dalako, zuzentzen nau, egaperatzen nau ta atsegintzen nau.

Au esan geinke ziñiskintzea daukagunok.
¡Ai au ezin esan dabenak!

Baña, jarraitu dagigun agertzen gatozan edestia; bada, ezautzen dodaz bertako jazorak, batzuk, neuk ikusiak diralako, ta bestek, nastean diran notiñak, eurak agertu deustezalako.

Asensicho zan baserriko neskatilla galantenetariko bat, eta guztiak naibagetu zi-

ran bere zoricharratzaz; bada, zorichar andia zan aitaren alegiña, alabeari ziñiskintzea (feda) bastertzeko bere biotzetik.

Agustiña'k eta Diego'k, zoricharrerako bidean ikustez, ainbat geyako maitetzen eben.

Asensiño, Jauna Igokundea zan egunean, eldu nintzan Agustiña'ren echera, ta itandu neutsan oni bere semeatzaz.

—¿Nire semea?—erantzun eustan irribarrez—baratzean dago Asensicho'gaz. Urten neban eurakanuntz eta ikusi nebazan berbentan alkarreregaz egurzarea bitartean ebela. Guztiz maite nebazalako, neukan euren gapenak jakiteko gogo betea.

Matz-orri artean, estalki ostean bezela eskutatuta nengoala, ikusten nebazan Diego ta Asensicho, ta entzuten nebazan euren berbak, eurak neu ikusten eninduela.

Entzušu ikusi ta entzun nebana.

Neskatoak eukan eskuan lora-chorta eder bat, orduanche batuak, eta chortearen erdian jarri eban kabeliña berarizko bat.

—¿Norentzat dira lora orrek?

—Neure ezkongeichoarentzat.

— ¿Egia ete-da? — itandu eban Diego'k guztiz itzaltzu.

— Bai, egia-da.

— Agur, bada — esan eban Diego'k, eta jarri zan sorbaldea Asensicho'gana ebala joateko tayuan.

— Ja, ja, ja, ¡zein tentela! ¡ziñistu dau! — esan eban Asensicho'k zoro bat bezela barrezka.

— ¿Bada, norentzat daroazuz lorok?

— Aitarentzat; egin nai deutsat opari au, neure eguna dalako.

— Egia, gaur Asensiño-da — esan eban Diego'k alaitzu. — Ta niri ¿zein opari emongo deustazu?

— Zuri aulako loracho bat.

Au esanta, Asensicho'k artu eban egurzarean luzatuta egoan kalabaza baten lorea ta Diego'gana eskua luzatuta esan eutsan irribarrez:

Kalabaza lorea

Pollita benetan

Gizonai emoteko

Era batzuetan.

Diego'k artu eban kalabaza lorea, jaurti eban lurrera ta zapaldu eban amorruz, negargura begiak ebazala.

Neskatoak ezeban artu barrezka Diego'ren aserrea; atsekabeturik jarri zan, dambututa aserre-aldia emon eutsalako.

—Ara, Diego, etzaite aserretu chanchetan izan da-ta—esan eutsan Asensicho'k negar egin gurarik.

—¿Ni aserretu origaitik? Ez oriše. Baukadaz nok emon lorak. Ikusiko dozuz, ze ederrak eroango dodazan arratzaldean inchaurdiko dantzaketara.

—¡Bai! Zeure baratzekoak.

—Ez, Kataliña'ren lorategikoak.

—Ai, Diego, ez, eztot nai Kataliña'gandik ez bestegandik artu dagiñuzan lorak—esan eban Asensicho'k, malkoak begietan cbazala.

Diego, itzaltzu egoan.

Neskatoak, lora-chortatik artu eban erdiko ederrena ta luzatu eban besoa, samurta gozo esanaz:

— Artuñu au ta parkatu dazu.

—Eztot nai—erantzun eban Diego'k, eta

eneutsan ondo erechi, gogorregi esan eba-lako.

Orduan Asensicho'k eskuan eukazan lorak lez sututa, mozu eman eutsan eskiñiriko loreari, ta ipiñirik aringo Diego'ren eskuan, jarraitu eban echerutz.

Malladia igotera juala ikusi eban Diego. loreari mozu emonta gero, jakearen apain-garri ipinten.

Arratzalde atan, jai guztietan bezela, zarrrok, joan giñan inchaurdira, gazteak dantzan ikustera, ta ikusi genduan, Diego'k, beste egunetan, aldizka, batean Asensicho'gaz ta bestean Kataliña'gaz dantzan egiten ebanak, Asensicho'gaz bakarrik egin ebala.

Diego'k polito ekian *gitarra* joten eta abestuten, ta gitarrea joten egoanean neskattillak joten eben *panderoa*.

Arratzalde atan ekin eutsan gitarreari dantzaldi batzuetan eta ainbat bidar abesau eban abesti au.

Asentziño egunean
emon zeustan lorea
izan zan nire biotza
josí eban untzea.

Diego'k illuntzean lagundi eutsan Asensicho'ri, eche nagosiko aterarte, ta baseliza'ren ondotik igaro zanean, buruztu ta Kurutze-Santuaren... egin eban.

Asensicho'k ezeutsan irri egin Diego'ren egite Dontzua'ri.

¿Ete zan, erlejiñoa ta Asensicho'ren ari-mako gogapenak alkartu nairik ebiltzalako?

Bayetz uste dot, eta zuzen noala erakusteko, agertuko deutsudaz neska orren ari-mako eskutapenak, ber-berak geroago esan eustazanak.

Eztakit nok esan daben idazti baten, Jaungoikorik ezpalego, asmau egin biarko litzakela.

Diego'k maífe eban Asensicho; baña, aserre-aldiak emoten jolastuten zan, maífe doguzan umiai egiten deutsagun lez.

Bere semeari aserre-aldia emoten deutsan ama, bularra espanetatik kenduaz, artzeko gogo geyen daukanean, izutuko litzake baleki guztiz mingarria izaten dala umientzat egite gaizbageko ori.

Emastegeyari aserre-aldiak emoten jolastuten dan senargeya, lora bat eskiñita edo

berba atsegintzu bat esanda beste neskatilla bati, izutuko litzake, baleki, egite orrek eroan daben mingarria emastegeyaren biotzera.

Joteak egiten daben miña, toki sendoan edo samurrean, zeñetan artu dan, izan oida gogorra edo biguna.

Zuk, abesti zalea zaralako, gogoratuko dozu neurtitz bat, asten dana esaten:

Kataliña'k eldu eustan...

Udako gau baten, Diego jarri zan gitarra joten echecho ikustokian, eta Asensicho, eche-aurrean egoana, aserre ipintiarren, gau guztian abestu eban abesti aren asierea.

Errepail jauna Bilbo'ra joana zan, eta gaberdian echeratu zanean, neskatoa negarrez idoro eban.

—¿Zer dozu alabea?—itandu eutsan.

—Aita—erantzun eban alabeak—ezeida zu itandu; bada, zuk ez iñok mundu onetan ezin zuzendu izango dau.

—¿Zegaitik ez? Diruak guztia egiten dau.

—Baña, nire zoricharra ezin zuzendu izango dau.

—Diruak ezin badau, zeure aitaren mai-tetasunak alizango dau.

—Ezta orrek-be.

—¿Baña, zein gešo da zuria, alaba neu-re-a?

—Diego'k enabela maitetzen.

—¿Ziur zagoz orretan?

—Guztiz ziur.

Errepail jauna iſildu zan.

—¿Eztozu ikusten eztogola mundu one-tan sendagarririk ez atsegijñik nire zoricha-rrarentzat?

—Egia alabea; baña...

—Aita, jzein tamala da Jaungoiko'rik ez egotea, atsegijña eskatzeko, gizonai eska-tzea alperrikoa danean!

—¡Egia, tamala-da!—erantzun eban Erre-pail'ek, arimearen barru-barrutik, damututa Jaungoikoa aldendu ebalako alabearen bio-tzetik.

IV

Kataliña'k merezi izan eban Diego'ren mai-tetasuna, biotzaren barruan gordeta iſi-

Ilik eukiarren, Diego maite ebalako; baña, Diego'k nai eban Asensicho, ta bein baño geyagotan entzun eutsan Kataliña'k abestutzen:

¿Zelan nai dozu argi bakar bat
eroan gela bitara?

¿Eta nik zelan maitetu neikez
biotz bi erabatera?

Kataliña gaśua, galanta ta arrokeri bakoa zan; ulertzen eban Diego'k adierazoten eba-na neuritz orretan; baña, artzen eban eroa-pena bere zorichartasunean, askok egiten daben lez, alegiñak egin baga gizonen bio-tzak beregantzeko; eta alan ta guzti-be, Kataliña'k berak nai ezta, aldi naibagetzua-k emoten eutsazan Asensicho'ri.

Asensicho'k, ezin eban ikusi Kataliña, ta Diego jolastuten zan, Kataliña sarri aitatuaz bestia aserre ipinteko.

Baserriko Elizea'k eukan Deun Antonio elizmai baten, eta elizmai au lorakaz apain-tzen eben neskatillak udabarria etorrenean. Larunbata'ko arratzalde baten, Asensicho'k ikusi eban Kataliña Elizara juala lora chorta

eder bategaz, ta jarraitu eban bere atzetik. Gerochuago Asensicho biurtu zan echerutz, guztiz itzaltzu, ta Diego'k aurkitu eban inchaurdian.

— ¿Nundik zatoz? -- iñandu eutson Diego'k
— Elizatik.

— ¿Noiztik ona ain kristiñau?
Asensicho iñildu zan aldicho baten.

— Eztakit — erantzun eban gero.

Ta negarrez jarri zan.

— ¿Zegaitik negarrok?

— Kataliña'k lora chorta bat Deun Antonio'ri eroan deutsalako.

— ¿Ta ze ardura deutsu zuri origaitik?

— Ezkongeya emon dagion eroango eutsan.

— ¿Ta ze ardura deutsu alan izanda-be?

— Deuna'ri eskatu deutsan ezkongeya zeu izango zara.

— Ta alan izanda-be ¿ze ardura deutsu zuri, Jaungoikoa'gan ziñistu ezik?

— Ara-ba... badezpada.

Badespada onek iragarri eutsan Diego'ri, ziñiskintza bakoak eztagozala sendo euren buruerakaz, ta biurtu leitekezala zi-

ñiskintzara; baña, Diego gaztea zan oraindiño ta ezebazan oso ulertzen zarrok argiro azaltzen doguzan ezkutapenak.

Zorionean Jaungoikoa dago ziñiskintzatik aldendu nai daben biotzen barruan, eta beti zerbait egiten bide onerako.

Arratzalde atan, eguzkia mendi-ostera sartzena juanean, eche-nagosiaren ate-aurretik, edarrea (ur-ontzia) buruan ebala igaro zan Isabel, Kataliña'ren adiñeko neskatilea, ta deitu eban:

— Asensicho, ¿bazatoz iturrira?

Asensicho jachi zan aringo bere edarreaz, ta biak batera jarraitu eben gastañadiko iturrira.

Asensicho artega egoan Deun Antonio'tzaz; bada, Diego'k esanarren, neskati llak uste daben lez, Deun ori eztala arazotuten ezkontzagille asmuetan, biotzillez aurkitzen zan.

Isabel'ek, Asensicho'k bezela eukan ezkongeya.

Isabel'en ezkongeyari, Pepe deitzen eutsen, eta Diego'k Asensicho'ri eutsan gaña maitetasun ez eukiarren, Pepe'k ezeban egi-

ten Diego'k bezela esakuniak diñoana, au da: «ondo nai dotzunak negar erasoko deutsu».

—¿Abestuko dogu?—esan eban Isabel'ek.

—Eztot gogorik—erantzun eban Asensi-cho'k.

—¿Miñez zagoz?

—Bai nago.

—Abestuten daunak, mingarriak izutzen dauz.

—Baña, ez nire mingarriak diralakoak.

—¿Zeintzuk dira zureak?

—Diego'k enabela maite.

—¡Alde ortik guzurti ori!

—Ez, egia-da.

—Ona-ba, nik dakit egin bear dozuna ezkongeya zintzoa izateko.

—¿Zer egin bear dot?

—Nik otoitz egiten deutsat Maitetasun Ederreko Ama'ri, Eliza'ra goiz ta arratsalde deitzen dabenean, eta Pepe'k guztiz maite nau.

—¡Orrek tentelkeriak dira!

—¡Tentelkeriak! Egiñuz otoitzak nik be- zela, ta Diego'k maite izango zaitu.

— Nik eztot ziñistuten Jaungoiko ta Deunen gauzarik.

— ¡Ken ortik judio ori!

— Oba izatea.

Išabel eta Asensicho iſildu ziran aldicho baten.

— ¿Ta Pepe'k eta zuk eztozue eztabadarik izaten?

— Iñoz-bez. Igandietako dantzaketetan eta *erromerietan*, eztau neugaz baño dantzatzen. Goizean jagiten nazanean, idoroten dot beti larrosa edo kabeliña eder bat berak ekarrita. Gabean, lanetik datorrenean, ezta echeratzen, gurera, neu ikustera etorri barik. Abestuten diarduenean, nire izena daramil beti abestietan. Bilbo'ra doanean, beti dakar zinta bat nire ulerako. Mendira doanean, eztator iñoz kabeliña edo lora chorta barik niretzat. Nik diñotana ta nik gogoratzan dodana, dira beretzat ondoen esana ta gogoratze onena. Ni itzaltzu banago, bera-be, betillunaz dago, ta ni alaitzu egonezkero, bera-be neu bezela.

— ¡Ai zein zorionekoa zara Išabel—esan eban Asensicho'k negarrez ondamuz.

— Bai, alan naz.

Onetan, jo eban Eliza'n illuntzeko otoitz-soñua, ta Isabel'ek irribarrezka Kurutze Santearen... eginta jarri zan otoitz egiten.

— ¿Zein otoitz egiten dozu? — itandu eutsan Asensicho'k.

— Agur Maria, Maitetasun Ederreko Ama'ri; egiozu zuk-be ta ikusiko dozu.

— Egingo deutsat, badezpada.

Asensicho jarri zan otoitz egiten; baña, aringo gelditū zan, esanaz:

— ¡E! ¡Nik eztodaz nai ziñistu onek tentelkeriok!

— Zeuretzat izango-da charrago; bada, Diego'k etzaitū maite izango.

Isabel'ek jarraitu eban otoitz egiten, ta onetan egoan artean, poztasun andia agertzen zan bere arpegian, biotza Jaungoi-koa'gaz berbetan baleuka lez, ta eskiñiten baleutzaz lez, lurreko ta zeruko zorion atsegintzuenak.

Asensicho, bitartean, iñillik aurkitzen zan, burua okerturik eta arpegian ezagun ebala eukan naibagea; ta negartzu ta artega jarririk, esan eban:

—; Zegaitik eztodaz nik eukiko atsegin-garri, besteak daukezan zorginkeri ta tentelkeriak, zorionean bizi-izateko!

V

Isabel'ek, Asensicho'ren echeondotik al-dendu zaneko, idoro eban Diego lanetik etorrela.

—Entzun Diego—esan eutsan Isabel'ek:
—Asensicho neugaz juan da iturrira, ta berba asko egin doguz zutzaz.

—¿Ta zer esan dozue?

—Geiztochoa zarala.

—¿Zegaitik?

—Asensicho'ri aserre-aldiak emoten deutzazuzalako.

—Ondo nai dotzunak, negar erasoko deutsu.

—Diego, Jaungoikua'gaitik, etzaite ibilli chanchetan; bada, neska gašua naibagez ilgo da onela jarraitzen badozu. Eztakizu zenbat negar egin daben gaztañadian.

---¿Benetan?

— Bai, benetan.
— ¿Ta zegaitik?
— Eztozula maite uste dabelako.
— Eztau ondo egiten ori uste izateaz.
— Maite badozu, ¿zegaitik erakusten dozu eztozula maite?
— Jolastu nairik.
— Jaungoikoa'gaitik, Diego, ichi yozu jolasketa deunge orri; bada, zuek gizonok bazenkie gure biotzetan egiten daben zauria zuenetan ikararik-be erasoten eztaben jazoe-rak, errukituko zeintekeze gutzaz. ¿Eztozue gogoratzen, guretzat zoriontasun guztiak maitetasunian dagozala, ta zuentzat, gizoneztat, maitetasuna, eztala besterik, zoriontasun askotatik bat baño mundu onetan?

— Egia diñozu Isabel, ta poztuten naz itun ori agertu deustazulako—erantzun eban Diego'k itzaltzu, chanchetako berbak bastertuta.—Ziurtuten deutsut Asensicho maite dodala, Pepe'k zu zaituzan gaña.

Isabel, irribarrez ta pozez jarri zan, azkeneko berbak entzun ebazanian, eta Diego'ri agur eginda jarraitu eban bere bidea, Pepe gogapenean ebala.

Gaba zan Diego echeratu zanean.

— Neure seme gašoa, nekatuta etorriko
zara — esan eutzan amak.

— Aringo jaurtiko dodaz nekeok abesaldi
bat egiñaz geure ikustokian.

- Ondo egingo dozu seme.

Abestu, ta ez egon negartzu,
abestutean biurtzen dira
biotzak alaitzu.

Zu abestuten zagozan artean, atzamarra k
muſtako dozuzan aparichoa ipintera noa.

Gaba guztiz ederra zan.

Illargi beteak, argitzen eban zero oztiña,
Asensicho'ren begiak bezelako margoa
ebana.

Larrosa ta kabeliñak sortuten ziran alde
guztietan, Agustiña'ren baratzean bezela,
Errepail jaunarenean-be, ta zugatzak egozan,
batzuk alorbez eta besteak loraz beterik.

Gabeko intza beteten zan baratzetatik
artzen eban usain gozoz.

Diego jesarri zan Illargia'k argitzen eban
ikustegiko sokondo baten, zugatz-orriak
illargia estaltzen ezeben tokian.

Eche-nagosiko ikustokian, illunean, illargia'k joten ezebalako, Diego'k ikusi eban baltzune bat, eta uste eban Asensicho izango zala.

Artu eban gitarrea ta asi zan abestutent:

Asentziño egunean
emon zeustan lorea...

Ikusi eban baltzunea zirkin egiten.

Diego'k orduan, guztiz gozatzu abestu eban beste abesti au:

Bakaldun diran danak zugaitik
abuyatuko nítuke;
bada, zu zara bakar-bakarrik
nire biotzaren jaube.

Ikustokiko baltzunea urten zar argitara, illargia'k argitzen eban tokira, ta Diego-be ara juan zan; bada, abestiak itzartu eben baltzunea, izan zan Asensicho izena eban larrosa ta lora chortea.

Diego ta Asensicho eldu ziran ezkongeyak izatera, adizkideak izatera eltsen dan bezela, itaun eta erantzupen bage; alkarri maitetasuna agertu barik; berez sorturiko

maitetasunez; alan izan bear ebalako. Ezeutzen iñoz alkarri itandu: ¿maite nozu? Diego'ri echakan otu iñoz itaun ori egitia, Asensicho'k maite ebala uste ebalako, ta Asensicho etzan azartu itaun ori egiten, Diego'k egin ezeutzalako.

Asensicho, artega egoan, Diego'ri ¿maite nozu? itantzeko gogoaz.

¿Maite nozu? barik ¿zer da maitetasuna?

Ondo dokie ori maitetasuna ezautu dabenak, esan leike jayo diran guztiak.

—Asensicho, ¿negarrez zagoz?

—Bai nago, Diego.

—¿Zegaitik negar egin dozu?

—Zeozer gaitik.

—¿Eztakišu nik maite zaitudala?

—¿Maite nozu? ¿Māite nozu?

Neskatoak biñaka aitatu ten eban ¿maite nozu?, aurrerago itaun ori egiteko ebazan gogoak beteteko.

Neu ta guraso maiteak baño
zaítut asko maiteago;
baíta obena ezpalitzake
Birjiña Karmengo baño.

erantzun eban Diego'k, bere bularrean estututa neskearen burua.

— Seme neurea, goazan apaltzera – esan eban Agustiña'k, ikustokira agertuta.

— Banator ama — erantzun eban Diego'k.

— ¿Benetan Diego? ¿maite nozu? — itandu eban barriro Asensicho'k.

— Pepe'k Isabe! baño maiteago.

Ta jarraitu eban amagana.

Errepail jaunak, bitartean, Boltaire irakurten eban, eta ezeutsan jaramoten alabeari; bada, bere burueretan uste eban neskari echakela eragotzi bear gogo onean ibiltea.

Asensicho, negarrez, ez naibagez, pozez baño, joan zan ikustokirako dagon malladia zear, ta gelditu zan sapalloan; begiratu eban lenengo odaiertzera ta gero zerura, lurra gauza zikiña balitz lez, bere biotzeko goga-penetan.

Geśotuta ilten diran gizon eta emakume; legortuta jausten diran lorak; pizti satarridun lurrik; loītu ta legortzen diran ibai ta errekkak; legortzen diran zugatzak; onek, bizi garan lekuau dagozan gauza guztiok, etziran ezer, neska maitedunaren adimen alda-

korrerako; bada, zegaitik zan azaldu barik, juan nai eban leku andiagora, goragora, ederragora, adimenean bakarrik sorturikora, bere arimeaz alkarturik egoan gogapenera.

Isabel'ek bezela ziñistu izan baleu Jaungoikoa'gan, eta ikusi izan baleu Maitetasun Ederreko Ama, bitartekotasuna ipinten maitetasun garbietan, izein arrigarria, zein atsegin zerutar gozoa, Jaungoiko neurea, aituko eban bere arima maiteak, begiratu ebanean argiz beteriko zeru oztiñera!

Neskeak ezeban ziñistuten Jaungoikoa'gan, eta orduan gogoratzen eban zeitzala dan, naibage larregian zein atsegin geyegian, arimeak ezin esan izatea: — ¡Jaungoiko neurea!

VI

Arratzalde baten, eguzkia estaltzera joanean, sapalloan egozan Errepail jauna ta Asensicho.

Errepail egoan *Las ruinas de Palmira* derichon idazti bat irakurten, eta Asensicho'k sapalloaren burdinsarean bularra ebala, be-

giratzen eban guztiz adikor, Bilbo'rako bide zabalera, norbait ikusteko icharopenez dagonak bezela.

Agustiña igaro zan sapallopetik edarrea buruan ebala.

— Arratzalde-on alaba — esan eutsan Asensicho'ri guztiz maite ebalako

— Arratzalde-on aña. ¿Iturrira zuaz?

— Bai, ur ezea ekartera; bada, gaur egin daben beroaz a gizajoa egarri izango da datorranean.

— Belu dator.

— Laster agertuko da. ¿Artega zagoz icharoten?

— Bai, icharoten nago.

— Neu bezela.

Agustiña'k jarraitu eban bere bidean, poztuta, neskea bera lez artega, Diego'ri icharoten egoalako.

— Eztot ikusten ondo betaurre barik — esan eban Errepail jaunak, eta idaztia ichita, zutunduta, juan zan sapallora alabearen ondora.

— ¿*Ruinas* irakurten egon zara? — itandu eutsan Asensicho'k.



...Asensio k sa-
palloaren burdinsa-
rean bularra ebala,
begiratzen ehan guz-
tiz adikor, Bilbora bide zabalera, norbait ikuste-
ko icharopenez dagonak bezela.

—Bai, ta enaz iñoz aspertzen idazti ori irakurtean.

—Nik-be len pozez irakurten neban baña, orain ez len beste.

—¿Zegaitik?

—¡Eztakit!

—Laster, zu poztuko zaituzana *Año virginal* da, Diego tentelak, ama elizaleari irakurten deutsana.

—*Año virginal* ez, baña, *El Genio del Cristianismo* ta *Los mártires*; irakurten dauzanak, nayago dodaz *Ruinas* baño.

—¿Ta noiztik ona eztozu nai *Ruinas*?

—Norbera ilten danean, guztia ilten dala gogoratzeak gogait erasoten deustanetik.

—¿Ta ze ardura dago gertaera origaitik?

—Zu ilten zaranean, bakarrik geldituko naz munduan.

—Bakarrik ez; milloi-erdi diru ichiko deutsudaz ta ori da lagun onena. Isabel, Katalina ta beste umezurtz eta beartzuak eztauke olako lagunik.

—Bai, baña orrek, ama illaren, uste dabe zerutik amak ikusten dauzala; euroen berbak entzuten dauzala ta zainduak dirala; ta atse-

kabez dagozanean, deituten deutse amari ta onela atsegintzen dira..

— Tira, tira, alabea, etzaíte izan tentela ta zorginkeriduna gure inguruau dabiltzanak bezela.

Berba onek etziran naiko Asensicho atsegintze; zerbait gogoratzen egoan Bilbo'ra-ko bide zabalari begira, ta ikusi eban mutil gazte bat aringo etorrela, jakea sorbaldan, chapel gorria atzerutz jausita, makilla polit bat idun ganean, eta besoak makillan kurtzeturik.

Diego izan zan.

Asensicho'ren itzaltasun eta gogapenak amaitu ziran Diego ikusi ebanean.

Diego, bere echera joan-orduko Erre-pail'erenera juan zan.

Asensicho, aringo joan zan malladira Diego'gana; bada, uste eban ekarriko eutsala opari gozo edo zerbait, Isabel'i maiteak ekarten eutsan lez.

Ta Asensicho'ren icharopena etzan izan utsa: Diego'k ekarri eutsan idazti guztiz ederto apaindua, ta Asensicho'k, idaztia'ren

ganean irakurri eban *El alma desterrada, por Ana María.*

El alma desterrada da kristiñau jakin-tzuak argitaratu daben irakurgei ospetzuena.

An, argitasuna lenengoz jayo zan lurradean, il zan neskutz batek, ichi ebazan atsekabez beterik bere ama ta lagunak.

Ama dontzuak, eskatu deutso Jaungoikoa'ri barrirastu eyela Lazaro obitik atera eban miraria, ta neskutza biztu da, baña bere arimea guztiz itzal dago beti; bada, zeruan egon da, ta uste dau bastertuta dagola lurrean.

Au izan zan, labur-laburrean, Diego'k Asensicho'ren eskuetan ipiñi eban irakurgeyak ziñoana; bada, uste eban irakurgei eder orrek daukan erlejiño usaña, goiz edo belu, elduko zala neskearen arimara.

Asensicho'k irakurgei ori artu ebanean eukan alaitasuna, aringo amata zan, ikusi ebanean Diego betillunez etorrela.

— ¿Zer dozu Diego? — itandu eutsan go-goz neskeak.

— Zure aitarentzat dakat idazki bat, eta zerbait albista charra dakar.

Sartu zan Diego idazkia Errepail jaunari emotera, ta irakurri ebanean, jesarri zan añen-urtika, Jaungoikoa ta Deun guztien aurrezka.

Errepail jaunak ziñistuten eban Jaungoikoa gan, añen-urtika bere aurrezka egoanean.

Zerbait, zerbait da.

Diego'k ekarri eban idazkiak ziñoañ, Errepail'ek diru guztiak eukazan salerosle-echea ondatu zala, ta geyenez, euneko bost geldituko zala arturen egozanentzat.

Urrengo egunean, Errepail jauna joan zan Bilbo'ra, ta echeratu zan guztiz atsekabez, ondatu zala jakin ebalako.

Echeratu zaneko ogeratu zan eta bigarren egunean il zan, eta obiratu eben.

Illorduko eskatu eban abade jauna, autortu nai ebalako, ta Asensicho, abadea eskatzean arritu zalako, aitak esan eutsan:

— Alabea, ekanduten dana egin bear da.

Au autortu eutsan berbaz alabeari. ¡Nok daki zer autortu eutsan barruz Jaungoikoa'ri!

Autorle bat baño geyagori entzun deutsat ziurtzen, autortzen diran guzurren ar-

tean dagola esatea, eztabela ziñistuten Jaungoikoa'gan, zintzotasunez ziñistuten daben batzuk.

Arrigarria bada onbidea guzurtutea, jze arrigarria, Jaungoikoa, izan bear da deungeria guzurtutea!

VII

Asensicho, ondiño, janzki baltzakaz jazten zan, aīta iltzalako.

Biotzean-be aīta eroyan; bada, begiak sarri eukazan malkoak eriozala, ta lengo matralla gorriztak, larrosa margokoak, zerbait oritu ziran.

Asensicho bakarrik aurkitzen zan ehetzar atan, illabete batzuk aurrerago, naibageak osatzeko, maīte eban aīta ta ondo artzen eben otseiñak eukazan tokian.

Emakume beartzu bat eukan neskame, otseintasunean laguntasun bakarra; bada, ezin eban emon aloger asko diruak onatu ziran ezkero.

Aītak uste eban Asensicho aberatz eta

zorionean geldituko zala; baña, guztiz bear-tzu gelditu zan.

Arei umezurtzai ziñiskintzeak emoten eutsezan atsegin dontzuak-be, ezebazan Asensicho'k: aitak irakatzi eutsazan ziñisgetasunak, sustar sakonak artu ebezan, eta ziñiskintzearen argia noizbait eltzen bazan arima aregana, laster pillotuten yakazan inguruau ezbayaren kerispe ta itzaltasunak.

Asensicho'k, zori charragoan egoanean, ainbat geyago bear ebazan ziñiskintza zintzoak.

Bere echeko gela baten egoan kucha bat idaztiz beteta, ta gogo barik begiratzen eutzan idaztitegi orri, ezebalako idoroten biotzak eskatzen eutsana.

Bein baño geyagotan gogoratu yakan idazti guztiak sutara jaurtitea; baña, ezeban egin gogo ori; bada, arimeak bear ebazan ziñiskintzak ez eukiarren, aitaren gomutagarriak ziralako.

Neketu baga irakurten eban beste idazti bat, ingostiak irakurtean atsegintzu egoten zalako: eu zan, *El alma desterrada*.

¿Asensicho'k, ziñistuten ete eban Ana Maria'k azalduriko edesti bardinbagea?

Agustiña ta Diego'ri ezetz esaten eutzan, eta benetan zan; baña, berak igarri barik ziñistuten ebazan edesti orretan, atsegin dontzuak egozan zero ta biztuteatzaz.

Ziñistuten eztan idaztiko gauzak, eztira iñoz gogoz irakurten.

Diego ta Asensicho, iñozko geyen maite-tzen ziran.

Diego'k maitetzen eban Asensicho, bear-tzu ta itzaltzu ikusten ebalako, ta Asensi-cho'k maitetzen eban Diego, biotz onez la-gunduko eutsala uste ebalako.

Diego'k nai eban alkartzea ainbat ariñen gaztetatiko lagunagaz; baña, etzan azartzen amari agertzen gogo ori.

Nik eztakit zelakoak izango diran muti-lak España'ko beste lurraldietan, bada, eme-tik enaz urrundu Valladolid'era baño; an egin nebazan urte bi gaztetan, ikastechean ikasten, eta enintzan egon luzaroago aita iltzalako; bada, ikaspenak ichi bearrean aur-kitzen nintzan echeratu ta amari laguntzeko; eztakit zelakoak izango diran baserriko mu-

tillak beste erkietan; baña, emen, Jaungoi-kua'ri eskerrak, ekandu garbiak daukaguz; bada, lotsatzea, ezta bakarrik neskutzena guztiena baño.

Asentziño aurreguna zan, eta Diego ta Agustiña bazkaltzen ziarduen.

— Seme ezer dozu, biotzillez zagoz ta eztozu ezer jaten? — itandu eutsan Agustiña'k Diego'ri. — Miñez zagoz?

— Ez, ama.

— Aserre-aldia izandozu Asensicho'gaz?

— Ez, andrea.

— Bada, zeozek zaukaz itzaltzu.

Diego iñildu zan.

— Zegaitik zagoz itzaltzu seme neurea?

Mutilla guztiz gorri jarri zan, eta erantzun eban:

— Ama, biar, lenengo aldiz bizi-izatian, igaroko dau Asensicho'k bakarrik bere eguna.

— Itzaltzu ta biotzillez egongo-da, ume-zurtza ta beartzua dalako; baña, bakarrik ezta egongo. Neuk ekarriko dot eguna geugaz igarotera, zeuk nai badozu.

Mutillak begiratu eutsan amari guztiz

pozez ta alaitzu, ta Agustiña'k aringo ulertu eban berba arek ondo egin eutsela semeari.

—Biar egingo deutsut onago dan egite bat—esan eban Agustiña'k bere artean.

Bazkaldu ebenean, Diego biurtu zan goizean lanean egon zan tokira. Etorri zan zerbait gogoratzen betillunez, ta biurtu zan guztiz alaitzu; bada, Asensicho'k entzun ebazan abestiak ziñuela:

Asentziño egunean
emon zeustan lorea...

Arratzaldean, baserrian guztia alaitzu egoanean, Eliza'ko ezkilleak biaramoneko jaya iragarten egozalako, Asensicho jatsi zan betillunez baratzera.

Agustiña'k ikusi eban, eta jatsirik bera-be, jarri zan berbetan neskeagaz egursare artetik, eta esan eutsan:

—Alabea, gabean eskegi bear zaituguz.

Neskea irribarrez ta negar malkoak eriozala jarri zan.

Agustiña'k ikusi ebanean, aringo esan eutsan:

—Tira, tira, ez egin negarrik, Jeremias

dirudišu-ta. Biar janzki baltz ori kenduko dozu, aldi luzean erabilli dozu-ta: etorriko zara geugaz gosaltzera ta bazkaltzera; ta arratsaldean Diego'gaz dantzatuko zera in-chaurdian.

— ¡Ai, aña! ¡Ni dantzatu!

— Bai, neuk dantzatu erasoko deutsuet zuri ta Diego'ri.

— Ezta errezi.

— Neuk abestuko dot alaituko zaitiezan soñua. Esana, esanda dago; nai dogu, biar egon zaitezan geugaz egun guztian.

— Eskerrik asko aña.

— Gorde eskerrak zeuk dakisunarentzat, eta ez utsegin biar, icharongo deutsugu-ta.

— Eztot uts egingo—erantzun eban pozez Asensicho'k.

Biararamonean, Agustiña, Asensicho ta Diego, bazkaria amaitzen egozan Agustiña'ren ikustokian.

Asensicho-be alaitzu egoan.

Diego'k artu eban edontzi bat ardaoz beterik eta edan-orduko esan eban:

— Jaungoikoa'k batu gagizan sarri gaur bezela.

—Alan izan dedin—erantzun eban Agustiña'k—egin bear dogu alegiña alkarregaz batzeko; bada, Jaungoikoa'k diño: *lagundu dazu ta lagunduko deutsut.*

Asensicho'k eta Diego'k ezeben ulertu Agustiña'k adieraso nai ebana.

— ¿Enozue ulertzen? — itandu eutsen Agustiña'k.

— Ez, andrea.

— Diñot, nai neukeala entzun igandean zuen lenengo deya, ezkontzeko.

Asensicho ta Diego ezin egon izan ziran deadar alaigarri bat egin barik, eta nai eben eskerrak agertu berba gozo batzukaz; baña, Agustiña'k ebagi eutsen berbea, esanaz: —*eskerrak Jaungoikoa'ri gaurko elikatuarak emon deuskuzalako;* au zan beti janostian egiten eben otoitza.

Asensicho'k, negarrez otoitz egin eban. Negarrez otoitz egin eta ez ziñistu Jaungoikoa'gan ezin izan leiteke.

Otoitza amaitu ebenean,urreko inchaurdian entzun zan Isabel'en abots biguna, pandero soñuaz batera.

— ¡la, ene semeak, dantzaldi bat egitera

oboan!—esan eutsen Agustiña'k, pozez ten-teldurik egozan gazteai.

Diego, barrezka aurreratu zan Asensi-cho'gana, ta chapela kentzera joyala, neskaticleak erantzun eutsan irribarrez ta burua makurtuta.

— Jakiña da, onek izaten dirala neska-mutillak alkarregaz egiten dabezan ezauga-rrriak dantzara juateko.

— ¿Eneban nik esan dantzari batek bezela dantzatuko zenduela?—esan eban Agus-tiña'k.

Ordu erdi geroago-be, Diego ta Asensi-cho'k, gogotzu ziarduen dantzan inchaur-dian.

Ta arik ogetamargarren egunean ezkon-du ziran Elizan.

VIII

Aberastasunak, berak bakarrik balekar zoriona, Asensicho zorionduna izango zan ezkonduta bigarren urtean; bada, aitak diru guztiak eukazan echea, lengo goyetara jaso zan, eta ordaindu ebazan zor guztiak, eche

orretako artezkariak artu eban senitatal andi bategaz Asensicho ta Salzedo'tar Diego ez-konduta gerochoago; baña, Asensicho orain aberatsa izanaren eta Diego ta bera guztiz maite izanaren, zori charrak jarraitzen eutsan.

Asensicho'k eukan urtebeteko ume eder bat, echeko alaigarria; baña, geso deungeo eukan ume onek, eta ama errukarria etzan aldendu egun eta gau askotan umearen on-dotik, beti zaintzen arduraz ta nekez.

Oraindiko ziñisgetasunaren sustar deungeak etziran oso aldendu Asensicho'ren biotzetik, naita uste izan, umea daukan amaren maitetasun dontzuan, ezin legokela ziñisgetasunik.

Diego, Asensicho ta Agustiña egozan artega Bilbo'ko sendagille ospetzu bati icharoten; bada, deitu eutzen umea ikustera etorteko.

Sendagillea etzan agertu uste zan orduan, eta Asensicho urtuten egoan artegatasunez.

Sendagillea eldu zan azkenez, eta aztertu eban umea, ezer esan barik. Isiltasun au mingarriago zan ama gañuarentzat.

— ¿Gaizkatuko da neure biotzeko alabea? — itandu eutsan Asensicho'k. ¡Jaungoikoa'gaitik esaidazu egia; bada, ezbaya deungeago da niretzat umearen eriotzea baño!

— Andrea — erantzun eban sendagilleak — Jaungoikoa'k bakarrik gaizkatuleike ume au.

Asensicho jausi zan adimen bage iyallean egoan umearen alboan.

Konorteratu zanean, Diego bakarrik egoan bere ondoan.

Ama errukarriak ipiñi eban belarria umearen ezpanetan, eta ikusirik arnasa artzen ebala:

— ¡Diego — esan eban — zaindušu nire ari-mako umea!

Ta malladia aringo igarota eldu zan Eli-za'ra. Belaunikotu zan Birjiña Atsegingarría'ren aurrean, eta guztiz neketurik esan eban gogotzu:

— ¡Birjiña Santisimea! ¡Errukitu zaite nitaz! ¡Gaizkatusu nire sabeleko alabea! ¡Ta zeruratu bada ni zeure oñetara etorri nazan bitartean, eskatu yozu zeure Seme Dantzuri, biztu daiteala Galilea'ko neskutza bezela!

Eliza'ko sokondo baten otoitz egiten egoan emakume bat; sutundu zan negarrez; baña, pozez ta naibagez. Juan zan besartetzen atsekabez egoan ama, umearen izena aitatuaz naibagea ibitzera.

Agustiña zan emakume ori; elizaratu zan Birjiñea'ri eskatzeria umearen gaizkatzea.

— ¡Ama! — deitu eutsan Asensicho'k — *¡Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan!* ¡Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan eta icharoten dot bere errukitasuna!

— Alabea; zuk eta guztiok icharoten dogu errukitasun ori — erantzun eban Agustiña'k negar malkoak eriozala.

Ta biak belaubikotu ziran barriro otoitz egiteko.

— ¿Ta umea gaizkatu zan? — itandu neutsan edesti au agertzen eustan agureari.

— Ara or daukazu — erantzun eustan eche nagosiaren aterutz besoa luzatuta. An agertu zan Andre gazte galant bat, zortzi urteko neskatocho, ule gorritzta ta aingeruak baizen ederra zan bat eskutik ekarrela.

— ¿Ta Andre ori bere ama da?

— Bai; ori da Asensicho; ori da Birji-

nea'ren betiko Artezkaria; ori da baserri onean ziñiskintza geyen daukana; ori da zelai onetako beartzu guztien ama, ta ori da lu-
di'an dagon emakume zoriontzuena.

Ama-alabak agur egin euskuen eta Baseiza'n sartuta belaunbikotu ziran Birjiñea dagon eliz-mayaren aurrean.

IX

Eguzkia sartzera joan urriñeko mendi ontorren ostean, eta nik artu neban neure paserrira bidea.

Lenengo abotza ta biotza Jaungoikoa'gana jaso nebazan lekuau, betiraunean eliz-inguruko zugatzen gerizpetan lo egozan gazteako adizkidien irudia agertu zan nire begien aurrean. Bein baño geyagotan, eguzki-sarrean artu neban echera bidea adizkide orre-kaz, Atsegigarri'ko erromeriatik echera-zean guztiok alaitzu, guztiok icharopen gozoakaz, gogapen nekegarriak, artegatasunak eta jayoterritik-urriñean egiten diran gogarte mingarriak bage.

Egin nebazan alegiñak, adimenetik al-dentzeko gogapen gozo ta samin orrek, eta jarri nintzan gogoratzen agureak azaldu eustan edesti bigun, samur atsegintzua.

Nik eztakit ze atsegin, ze elizaletasun ta ze biotzil dontzua eukan nire gogoak illuntzean, zugatz orritzuen artean, illunean galdu nintzanean eta echera bidea-be galtzen zan lekuan.

Arazotuta ebillen nire adimena gogapen askogaz, ez entzuteko neure atzetik etorren amabi urte inguruko mutil baten zaratea, ariketa neugana eldu ta agur amultzua egin eustan artean.

Neuk neroyan bidea eroyan mutikoak-be, nire baserria ta berea ikusten ziran mendi-gane baterarte.

—Gaba izango da — esan neutzan — zu echeratu orduke.

—Bai jauna; gichienez ordubete lenago.

—¿Ta eztozu bildurrik gabaz bakarrik joateko zugatzarte illun orretan?

—Ez jauna; bada, noizbait esanezkero:

¡Jesus, Maria ta Jose
gizonak dakusan gauzak!

eztabe urtetan izugarriak, eta eztau iñok jaramoten.

— Zuk, ori esanaz uste dozu eztogola ardura eta zoaz baketzu *mikelete* biren laguntasuna bazeunka lez. ¿Ezta?

— Ta ondiño geyago; bada, Jaungoikoa lagun dala, ezin leike iñok charrik, ta gizonek lagun dirala, bai.

— ¡Jauna!—esan neban biotzaren barrubarruan—mutiko onen ziñiskintzea, eukiñu beti bizirik bere ariman, zero ta lurreko zoriongarria dalako.

Mutikoa ta ni giñoa azan bidean zear, berbetan eta alaitzu.

Urreratu giñan mendi-ganera ta sartalderat begiratu nebanean, ikusi neban odai balts bat. Oñastu baten argia zan alde atatik, eta urrunean entzun zan turmon ots antzeko zaratea.

— Uste dot, gaur gabean ekaitza eratuko dala—esan neutsan mutikoari, guztiz artega, bada, ekaitzetan, nire gorputza artega ta neketzu egoten da.

— Ziur, echeratu orduko arrapatuko nau.
— ¿Ta etzaitue bildurtzen ekaitzak?

- Ez, jauna; guztia izango da bustitea.
- Edo oñastarriak puskatzea.
- Orrek enau bildurtzen.
- ¿Zegaitik?
- Bada, esanezkerro:

Santa Barbara bedeinkatua,
ingi ta ur bedeinkatuz
zeruan idatzirikoa,

eztago oñastaría norberagana etorriko dan
bildurrik.

Bigarrenez neukan ondamua mutikoaren
ziñiskintzeatzaz, ta eskatu neutsan Jaungoi-
koa'ri emon daidala betiko ainbeste urtetan
eta arimako zori charretan euki dodana.

Mutikuak, alaitzu abestuten ebäla artu-
eban bere baserrira bidea, eta nik ikusi ne-
ban neure baserriko ezkil-dorrea.

Orduanche jo ebezan elizan illun-ezki-
lleak, an, leku atan, alperrik nire begi ibil-
korrap billa ibilli ziran guztiak echeratu nin-
tzanean, eta orain betirauneko lotan dago-
zanak.

Orduan belaunbikotu nintzan; otoitz egin
neban; Jaungoikoa ta illak gomuta izan ne-

bazan, eta oñetan zabaltzen zan zelai edatzura ta urriñeko ichasora begiratu nebanean illunabarreko argi itzaltzuaz, irudi yatan ikus-ten nebazala zelai atan il ziran adizkideak eta ichasoan Jaungoikoa; batzuk gizonen eta besteak kristiñauen atseginingarri.

¡Jauna! ¡Zorigaiztokoa da *Cuentos de color de rosa*'ren egillea; baña, baketzu artuko dauz nekaldiak, irakurgei onen irakur-burua, bere biotzeko anotsa dan artean!

AZKENA

URIKOA

El Expósito izenaz Trueba k er-
deraz idatzi zuan ipuiaren euske-
ralbena da ipui au. Bigarren saria
irabazi zuan *Euskalerriaren al-*
*de*k 1914'n egindako batzaldian.

AGERLEAK

MARI-KRUZ

MARTIN

ISABEL

LIBORIO JAUNA

ANTON

MORROYA

Baseche bateko atarrea edo ate-aurrea, Zamudio'ko zelayaren egoa-aldean, Bizkaya'n. Inchaur Zugatz andi batetek daroa gerizpea atartera. Inchaurraren oñean dago aulkia luze bat. Echearen ate-ganean zurezko sapalloa ta masti-adar orritzuak apaingarri ta eguzkia estaltzeko. Zeláyaren erdian, solo orlegiak eta eche zuriak. Beste aldetik, lenengo, mendi tontorrak euren ingurueta soloak daunkezan basecheagaz, ta azkenez, Jata mendiaren goibe andidun bizkarra. Sartaldean ichasoa, Santurtze ta Algorta'ren bitartetik ichasustai ostiñerarte agiri dana.



URIKO A

LENENGO AGERRALDIA

MARTIN bakarrik. Ogeitik ogetabi urte bitartean dabilen mutil gazte bat da; arizko galtza zuriak, chamarra oztiña ta chapel gorria jazten dauz. Ezkilleak joten diar-due zelai-erdian ezkil-dorrea agiri dan lekuan.

MARTIN. ¡Mesa nagositik dato! Egia diño Išabelcho'k, moroen eta judegoen errietan, ezkillarik eztagon lekuetan, guztiz itzaltzuak izango dirala jaiegunak. Jorralla edo Orrilla'ko igandea; mendi orlegiak urriñean; ichaso oztiña zerua ta lurra alkartzen diran lekurarte; zelai loratzua beyetan eta zero argitzua goyetan dagoz eskatzen, ezkilla-soñulariak abestu ta bedeinkatu dagizela agiri diran edertasunak. ¡Gaur zero oztiña dago, Išabelcho'ren begiak lako! Bizkaya'n zero-janzki illuna izan oida; baña, oztiña jazteko gogoa yatorkanean, ¡alkondarea-be margo orretakoa daroa! Išabel iturrira joan zan

ur eze billa, aitamak ur ezea idoro eyen mesa nagositik echeratzen ziranen, ama goizean kortara joan zan bezela Iñabel'ek eta nik idoroteko esne beroa lenengo mesatatik gentozanean. ¿Zegaitik ete-da neska ori ondiño ez etortea? (Begiratzen zelairako aldatzera) An dator Santi tentela lagun dabela... ¡Orrek eulitzarorrekin egiten dauz alegría! Iñabelcho'k entzun dagizan beroren durundiak! Ez; niri surzuloak zabalten bayataz, Santi aldenduko da Iñabel'gandik surra zaurituta.

BIGARREN AGERRALDIA

MARTIN eta ISABEL. Au agertu da edarrea buruan dabela ta ataria zeartuta sartu da echera. Amaseirik amazortzi urtera bitartean dabillen neskea da, margo zuri ta gorriztachoa, gona gorri laburra, gorputzean oyal lerro zuri ta oztinduna, ta buruan margo askodun zapia, ule chorta gorrizten sustarretan polito lotuta.

- ISABEL. ¡Agur, Martincho! Erdu edarreari eskuia ezarten. (Sartu da echera)
- MARTIN. Bada, enoa; ezti biurtzen dana... ¡Baña, neska gašoa aldatzean neketuta dator! (Doa atera ta gelditzen da, Isabel buruko sorkia jaurtitza datorrela ikusi dabe-nean)

- ISABEL. Eskerrak, Martin, esangiña zaralako.
- MARTIN. Maiteago dozun otseña daukazu lagundu dagisun.
- ISABEL. ¡Ja, ja! ¡Maiteago dodana! ¿Santi esan nai dozu?
- MARTIN. Ta zegaitiak dodaz ori esateko.
- ISABEL. ¡Jesus, Martin, ezeidazu berba egin mutil oritzaz; bada, irakiten ipiñi deust odola iturritik aldatzerarte!
- MARTIN. ¿Irakiten zegaitik ipiñi zaitu?
- ISABEL. Uskeriak esaten etorri dalako.
- MARTIN. ¿Jakin leíteke zeintzuk diran uskeriok?
- ISABEL. ¡Zegaitik ez! Diño asko-asko maitetzen nabela, ta Jaungoikoa'gaitik maítetu dagidala bera-be, ta gaur arratsaldean etorriko dala bere aíta nire gurasoai nire eskua eskatzera ezkondu gaítezan lenbailen.
- MARTIN. (Guztiz aserre) ¡Amorratzen nau neure zoricharrak!
- ISABEL. ¡Martincho, Jaungoikoa'gaitik ez aseretu! ¿Ni zegaitik naz errudun Santi'k esan dauzan berbakaitik?
- MARTIN. ¿Eneíteala aserretu diñazu, ta bere aíta datortzu eskua eskatzera? Badator, zeure bayetzaz etorriko da.
- ISABEL. Eztago nire bayetzik, Martincho. Nik esan deutsat, bizirik puskatzen banebe-be, enazala beragaz ezkonduko.

- MARTIN. (Guztiz alaitzu) ¡O! ;bedeinkatua izan bedi zure aboa!
- ISABEL.. Gero itandu daust, beste bat maite do-dalako etedan.
- MARTIN. ¿Ta zer erantzun deutsazu?
- ISABEL.. Guzurcho bat esateko gogoa neukan, egia esaten lotsa nintzalako; baña, enintzan azartu guzurra esaten; bada,urrengo autortu nintzanean, agiraka gogorrak egin lenengo, ta kredo asko otoitz egiteko esan eustan abade jau-nak esan nebazan guzurrakaitik.
- MARTIN. ¿Ta zer erantzun zeuntzan Santi'ri esan eutsunian, bera ez maítetzea beste bat maite zendualako izango zala?
- ISABEL.. Erantzun neban... ¡Ai lotsa naz esa-ten! Ta Santi'ri lotsatu bage esan neu-tsan.
- MARTIN. Baña, barritzu orrek, ¿zer esan zeun-tzan?
- ISABEL.. Bayetz erantzun neutzan.
- MARTIN. ¿Ta zer esan eban orduan?
- ISABEL.. Jo eban lurra ostikoaz, esan eban oben ikaragarri bat, eta itandu eustan ia zu-zaran nire maítea.
- MARTIN. (Artega jakin nairik) ¿Ta ezetz esango zeuntzan?
- ISABEL.. Baña, Martincho, ¿zegaitik esango neutsan guzurra?

- MARTIN. ¿Bada, maitetzen nozu, Isabel?
- ISABEL. ¡Jesus! ¿Zegaitik eztot esango obena eztan guzur bat?
- MARTIN. ¿Bada, maite nozu?
- ISABEL. Bai, Martincho; zuk ni baño maiteago.
- MARTIN. Nik zu zaifudan baño maiteago ez, Isabel; bada, nik guztiz maitetzen zaifut.
- ISABEL. Guztiz asko maitetzen zaifut. Lengo egunean iturritik nentorrenean, oarke-tu neban, ama ta Mari-Juana egozala berbetan gutzaz, errekan oyakal garbitzean, eta amak esan eutsan Mari-Juana'ri: «Orrek, nire gazte biok lez alkar maite daben neba-arrebarik, eztago baserrian». Ta Mari-Juana'k erantzun eban: «Beste neba-arreba batzuk, ezin maitetu leike alkar, neba-arrebak lez baño; baña, zure gazteok maitetu leitekez alkarregaz neba-arrebak lez, ta ganera, beste gauza bat lez». ¿Bidakizu Martincho zer esan nai izan daben Mari-Juana'k?
- MARTIN. ¡Bai beintzat!
- ISABEL. Bai-ba, gizonok guztia dakizue. ¿Ta zer da esan nai izan dabena?
- MARTIN. Zu ta ni, maitetuak izan geintezala ez-kongeyak bezela; bada, gulako neba-arrebak, ezkondu leitekezala alkarregaz, ta beste erakoak ezin leitekezala.

- ISABEL. (Pozet saltoka) ;Ai ze gauza ona da gu-lako neba-arrebak izatea!
- MARTIN. (Motel) Ona ta charra Isabelcho, ;niretzat beintzat!
- ISABEL. ¿Zer adierazo nai deustazu?
- MARTIN. Enazala ni, nai neukean lez, zugaz ez-kontzea merezi dodana, zuk nigaz egi-tea merezi dozun lez.
- ISABEL. (Negar-gura) ;Ai Jaungoiko neurea, ze berba itsuak diñoz Martincho'k!
- MARTIN. Ez, eztiñotaz Isabel Zu zara guraso ezautuak eta maifetuak diranen alabea, ta ni naz guraso ta ugutzau ninduen abadea-be ezautzen eztiranena.
- ISABEL. Ez, Martin, ez; zu zara Echebarria tar Anton eta Agirre'tar Mari-Kruz'en semea, ni alabea nazan lez.
- MARTIN. Ori egia balitz lez maifetzen nabe ta maifetzen dodaz; baña, guztiak dakie, Anton eta Mari-Kruz'en lenengo semea iltzala jayota illabete batzuk ebazanean; Mari-Kruz'ek artu ebala azteko uriko ume bat, guraso ezezaunena; ume onek iru urte ebazanean jayo ziñala zu; Anton eta Mari-Kruz'ek artu ebela semetzat urikoa, ta uriko ori neu nazala
- ISABEL. Egia da ori Martin; baña, baita egia da Anton eta Mari-Kruz'ek maite zaituezala ta izan zaituezala ni bezela,

zeure aitama legezkoak balitzaz lez, ta
il zan semea biztuta zeu baziña lez.

MARTIN. Egia, Isabel; baña, ori olan izanarren,
čnok daki gure guraso jatorri onekoak
eta euren odola enda ezezaunakaz
nastau bakoak, ni maīte izanarren, nai
izango badabe, ni, uriko semea, euren
alaba bakarraz ezkontzea eskua eska-
tzen deutsedanean? ¡O! ¡nire zori cha-
rra! ¡Gizon ospetzu baten semea bani-
tzake!

ISABEL. (Negarrez) ¡Ai, Martin, ze gauza itzal-
tzuak diñozuz ta gogoratzen yatzuz!
¡Ta ori jazoko balitz, ni miñez ilgo
nintzake!

MARTIN. Ta ni-be bai, Isabel, ¡neure arimako
arreba atsegigarri ederra!

ISABEL. Jakin eikezu, Martin, eta ziur nago
orretan, mundu onetan ezin egon leite-
kela arrebarik, nik zu maifezen zaitu-
dan gaña nebea maitetzen dabenik.

MARTIN. ¿Zegaitik Isabel?

ISABEL. Uste dodalako, dakidana, gogoratzen
yatana ta bizi-izate guztia, zeuri zor
deutsudazala. Gurasoakganako eske-
rrak eta maitetasuna beti zintzo doda-
zala, ikasbide onak irakatzi deustezalako.

MARTIN. Geyegi diñozu Isabelcho nire aldez;
geyegi zor denstazula.

- ISABEL. Ez geyegi, Martin, ez Aztu eztaidan zor nayagotzuna, Jaungoikoa k da-karztaz gomutara, zure izena esaten asi nintzanetik gaurrarteko jazoera guztiak. Azi nintzan guztiz makai saspi urte nebazanarte, ta ama gašcak sarri esan eroyan biotzillez: «;Jaungoikoa'ren aingerucho au, beti dago egalak zabalik dauzala, zerura nebachoaren ondora egazka joateko gertu.»
- MARTIN. Egia da, ori esaten ebala amak negar malkoak eriozala.
- ISABEL. Amak, bere arazoak egiteko isten ninduen zugaz egun geyenean; zuk zaintzen ninduzun, jausten nintzanean jasoter ninduzun, zu ziñan nire alaigarrria; negarrez nengoanean legortzen zeustazan negar-malkoak, eta irakasten zeustan enekiena.
- MARTIN. ¿Zegaitik enebazan egingo orrek gauza guztiok, ni izanezkero indarra ta zu indargea?
- ISABEL. Bada, olanche azi nintzan zure laguntasunez, ta zeu ziñan nire alaitasuna, atsegina ta irakaslea. ¿Etzaitut maite izango beste edozein arrebak bere nebea maitetzen daben baño sutziago? Baña, berbetan, berbetan aztu dogu sukaldea; jatekoa atondu bear dot; bada, gurasoak aldatzean gora datozi.

- Orain, Martincho, badakiñu Santi'ren
aita etorriko dala gaur arratzaldean
nire eskua eskatzen.
- MARTIN. ¡Ai Isabel, ze zauria egin deustazu al-
bista orregaz; bada, gure gurasoak
bayetzean badagoz ni ilgo naz!
- ISABEL. (Negar gura) ¡Ta ni-be bai!
- MARTIN. Negar barik gogoratu dagigun zerbait
gurasoak ezetzean egon daitezan San-
ti'ren aitagaz.
- ISABEL. Onena da zeu aurreratutea Santi'ren
aitari.
- MARTIN. ¿Ta zelan Isabelcho?
- ISABEL. ¡Olakorik! ¡Gizonok eztakizue ezer!
Zeu aurreratu nire eskua eskatzen
gurasoai, ta Albizarra'ri-be bai, bear-
bada.
- MARTIN. Baña, enaz azartzen.
- ISABEL. Bizkaya'n egon zan *Korrejidore* jakin-
tun batek esan eroyan «enaz azartzen»
esaten daben Endoreak izaten dirala
charrenak. Ta negarrez zu arelakoa
bazara jazoko yat Santi'gaz ezkondu
bearra.
- MARTIN. (Negar gura) ¡Jaungoikoa'k eztayela nai
izan! ¡Duke baten semea banitzake!
- ISABEL. (Aldatzera begira) ¡Or datoza aitamak eta
jatekoa atontzera noa! (Sartu da echera.
- MARTIN. Ta ni, zara bete bedar idientzat eba-
tera. ¿Ta nilako sasikume bat, Bizka-

ya'n ditnoen lez, azartuko da Isabel-cho'ren eskua eskatzen? ¡Au arloa...! ¡Banitzake Sebillako gizon aberatseenaren semea! (Sartu da atarira ta urten dagoitai ta zareaz, onen utsunea sorbaldan sartuta, ta estaldu da soloetara sartzeko dagon egur-zare ostean)

IRUGARREN AGERRALDIA

ANTON eta MARI-KRUZ. Anton'ek darioaz galtza ta yake panozkoak eta chapel oztia, ta Mari-Kruz'ek, meriño baltzezko janzkia ta mantillea buru-ganean zerbait tolestuta. Berrogei urtez gorakoak dira.

- MARI-K. ¡Ai, Anton, ankak ezin dabe nigaz!
- ANTON. ¡Ai, Mari-Kruz, olako zerbait jazoten yake nireai-be! (Jesarri dira biyak inchaur zugatzaren azpiko aulkian)
- MARI-K. Orrek gomutaratzen deusku Urizarrerutz zear goazala.
- ANTON. Ta origaitik gogoratu bear dogu gazteak bear dan lekuan jartea.
- MARI-K. Zorionez, eztogu burua neketu bearrik; gogoratu dogu bear dan guztia.
- ANTON. Egia, orain bear dana da gazteak azkortu daitezala asmo orretan.
- MARI-K. Nik uste dot, oraingo, ondo gogoratuta daukela asmo ori.
- ANTON. Olan uste dot nik-be; baña, Martin ain lotsakorra izanik, icharon naibadogu

bera etortea guri azaltzera, jesarri geinteket neketu ezkaitezan. (Zalpurdia baten zaratea entzuten da) ¡Ísi, zalpurdia bat! ¡Ta bertatik jatsi da zaldun bat eta artu dau aldaspidea ona etorteko! ¿Liborio jauna, Bilbo'ko idazlaria ete-
da; bada, lengo egunetan, ori ibilli eida baserritarrai itantzen guk dauka-
gun ala ez, semetzat, uriko mutil bat,
eta ondo gagozan ala ez?

MARI-K. ¡Ai, Jaungoiko neurea! Biotzak diñost
gauza onik eztakarrela, ardura ezteu-
tsan gauzatan sartzen dan orrek...

ANTON. Neuri-be arantza zorrotza sartu deust
zaldun orrek dakarren ikerrak. ¡Ze
tamala chakur geizto bat ez eukitea
eskribau orri aldatzera urteteko! ¡Ba-
seche bakar onetan ezin egon leiteke
chakur barik olako jazoereta;ako
Gizon orren bildur naz.

MARI-K. Ichi neuri bakarrik berorregaz ta neu
atonduko naz zezencho orregaz.

ANTON. (Echean sartzen. Entzun, zaindu naste-
ien bat ekarri eztaigun, bada, egiz,
Euskelerriko abesti batek diño:

Eskribau ta sasiakaz
geldiro maite **neurea**,
eskribau eta sasiak
batera jayoak dira.

LAUGARREN AGERRALDIA

ANTON eta LIBORIO JAUNA. Liborio jauna da gizon gizen bat, zur-gane biribilduna ta berrogeta amaseirik irurogei urtera bitartekoak. Tabako autsa artzen dau zur-zuloe-tatik, naibagez edo atsegiñez artega dagonean. Age-rraldi onetan, Mari-Kruz agertzen da noizik-beñean sa-palloan entzuten.

- LIBORIO J. Egun on adizkide ona.
ANTON. Baita zeuri-be, zalduna.
LIBORIO J. ¿Zu zara, badezpada, Echebarria'tar Anton?
ANTON. Echebarria'tar Anton naz, baña ez badezpadakoa.
LIBORIO J. Gizona, etzaíte izan goganberduna.
ANTON. Diñotzut zalduna, beartzua izan-arren natorrela Jaungoikoak agintzen daben erako gurasoakandik eta enaz badezpadakoa.
LIBORIO J. ¡Gizona, zuek baserritarrok, beti zarie pekudunak!
ANTON. ¡Bada, baserrietara eltzen dira chori batzuk!...
LIBORIO J. Ichi dagigun antu au, Anton adizkidea, ta guazan nire etorrereak dakarren arlora. ¿Uste dot osasunez egongo zariela sendi guztia?
ANTON. Ondo gagoz guztiok, Jaungoikoa'ri es-kerrak.

- LIBORIO J. Tira, poztuten naz, bada, osasuna da onena. Nire mutiko bat egon da ija illean, eta ziñistu dazú bi bidar negar eraso deustala; lenengoan mingarriz ikusirik il bear ebala, ta bigarrenean atsegínez galbidetik aldendu zanean.
- ANTON. Arrituten naz, semea izanarren negar egin dozulako.
- LIBORIO J. ¿Zegatik arritu, gizona?
- ANTON. ¿Etzara *eskribaua*?
- LIBORIO J. Bai naz; baña, orrek ¿zer dauko zer ikusi norbera negarkorra izateaz?
- ANTON. ¡Eztakit nik Liborio jauna! *Eskribaua* negarkorra izatea... ezin izan leitekean gauza dala esan leiteke. Baña, tira, esaidazu zetan lagunduko deutsugun emetik.
- LIBORIO J. (Aulkian jesarten doala) Jesarri gaitezan emen aldicho baten Anton adizkidea; bada, berba batzuk egin bear doguz gauza baliokoatzaz.
- ANTON. ¡Baliokoa! ¿Norentzat?
- LIBORIO J. Geyen zeuretzat eta zeure sendiarentzat; bada, aurkiñuko zarie, uste izan eztozuen zorionez.
- ANTON. ¿Zorionez? Ezta charto etorriko Liborio jauna, echean eukiarren asko balio dabent gauzak.
- LIBORIO J. ¿Zertzuk dira gauza orrek?

- ANTON. Mutil bat eta neska bat,urrezkoak
balira baño geyago balio dabenak.
- LIBORIO J. Mutil ori, uste dot Martin izango dala,
ta beroritzaz agertuko deutsut edesti
bat, guztiz atsegintzua zuretzat.
- ANTON. Betor edesti ori; bada, guztien antza
dauko iragartean.
- LIBORIO J. Karlos'en lenengo gudan, Isabel'dar
gudarozteko agintari gaztechoa, Ma-
drid'en ospetua zan sendi bateko mutil
orrekin, maīteten eban Bizkai'ko sendi
onbijetzu bateko neskatilea; maīteta-
sun onegaz iruzurtu eban eta jazo zan...
¿Zer jazo zan gaizbide orregaz?
- LIBORIO J. Bada, deungekeri orrek ekarri eban
eguzkialako mutiko bat.
- ANTON. Iltia merezi eban deunge orrek.
- LIBORIO J. Mutikoa jayo zanetik eroan zan Uriko-
eche'ra. Amari esan yakan baserri ba-
tera daroela aztera; ta gurasoen mai-
tetasuna sendatzen zanean artuko ebe-
la, ta gudea amaitzen zanean ezkondu-
ko zirala; baña, uste bageko albista
batek agertu eutsan amari umea Uri-
ko-eche'ra eroan zala, ta guztiz artega
ta ikara jarritik albista orregaz, geso-
tu ta il zan.
- ANTON. Jaungoikoa'k zeruko atea zabalduko
eutsan ama gaśoari, ta *inpernukoa*
iruzurtu ebanari.

LIBORIO J. Iruzurlaria bizi da ondiño.

ANTON. Esakuneak diño, deunge guztiak daukela zori ona.

LIBORIO J. Amaitu zan gudea, ta esan dodan agintari gazteak, aztu ebazan ama ta semea; goratua izan zan gudarozteko nagosi jarri artean, eta ganera, eldu zan *Gobernu'ko Lendakari* ta *Markes* izatera; ta gaur da Madrid'ko jakin-tzen artean aberatzenetarikoa; baita Gobernu'ko gauzeten bitarteko indartzua.

ANTON. Arrituta isten nozu Liborio jauna.

LIBORIO J. ¿Zegaitik gizona?

ANTON. Baserrietan atzeratua gagozalako us-te izan dogu, gizon bat goratu ta ospetu-orduko, astertu bear dala bere bizi-izatea, burutik oñetara, ta onen gañako (atzazalaren ertza erakutsita) deungeke-ria agertzean, biraltzen dala kipulak jorratzera.

LIBORIO J. Gizona ;ze okerkeria!

ANTON. ¡Okerkeria! ¿Zegaitik?

LIBORIO J. ¡Bada, ona egongo litzake bakalderria gudaroztien eta gobernuaren buru barik! Baña, guazan arira, geure marke-sa'ren edeztia jarraitzena. Zar, aberats, España'ko andi ta guztiz ospetua aurkitzen zanean, otu yakan ezeukala bere aberastasunaren ondorengo zuze-

nekorik, eta gomutaratu yakan, bere aginduz Bizkaiko Uriko-eche'ra eroan zan mutilla.

ANTON. ¡Ordu onean sagar ezeak!

LIBORIO J. Ikusiko dozu, Anton, ondiño ordu onean izan zala. Markes jaunak, nire ezaupide ona eukan, Bizkaya'n bere ezagun askoren ondasun zaintzen doda zalako, ta orregaitik agindu eustan jakin dagidala nun dagon bere semea; orretarako emon eustazan bear ziran eskubideak eta dirua, mutilla idoroten baneban Madrid'era eroateko. Joantori askogaz jakin döt markesa'ren semea, zuek semetzat artu zenduen urikoa dala, ta echean daukazuela. Au ta geyago astertuta dakit beartzuak zariela; mutillak guztiz maite zaituez zala; zeuen alabea, uriko orregaz ezkontzeko ustea dozuela, alkar maite-tzen dabelako. Orrek barri guztiok biraldu deutsadaz markesari, ta gane-ra, esan deutsat, bere erantzupena ar-tu-orduko, izan leikela semea Bilbon, neurri echean egotea Madrid'era joateko abiapenak egiten. An ibilliko da bere jatorriari yagokazan lagun andi-putzakaz ta ezkonduko da galantena ta aberatsa dan neska bategaz. (Mari-Kruz'ek entzun dau guztia sapallotik, eta

negarrez erakusten dau daukan atsekabe
mingarria)

ANTON. (Guzur-alaiz) ¿Zer diñostazu Liborio
jauna?

LIBORIO J. Entzun dozuna, Anton adiskidea. Tira,
orain bear da, zuk, emasteak, alabeak
eta Martin'ek ibitü dagizuela alaitasun
sutzua; bada, alaitasun larregiak, atse-
kabe larregiak lez, eriotzea dakar.

ANTON. Naibageatzaz itune bat egin bear deu-
tsut Liborio jauna.

LIBORIO J. ¿Zein, Anton adiskidea?

ANTON. ¿Zeure joan-etorri guztiakaz, marke-
sari erantzun bear bazeuntzan ankak
luzetu bearko dauzala, bere ondasunen
ondorengoa echeko gela apainduetan
ikusi barik, etziñan naibagetuko?

LIBORIO J. Guztiz naibagetuko nintzan eta geñot-
tuko nintzan albista ori markesari bi-
raltzean.

ANTON. Biraldu yozu-ba, ogeratu zaite, deitu
sendagilleari ta mingarrizko nekealdia
artusu.

LIBORIO J. ¿Zer adierazo nai deustazu Anton?

ANTON. Esan nai dot, Martin'ek aita daukala,
ta uste dodala senargeya-be bai, zuk
ez iñok billatzeko premiña bage.

LIBORIO J. Aita, ta aita ona nazalako, ulertzen
dot, Anton adiskidea, naibagetzua
izango dala zuentzat mutilla istea; ba-

da, esan deuste guztiz egikorra dala, ta gogoratzen dot gogorra izango dozuela bere besoen laguntasun bage bizi-izatea.

ANTON.

¿Bere besoak baño ez? ¿Zuk Liborio jauna, eztozu iñoz euki biotzeko miñik?

LIBORIO J.

Iñoz-bez, Jaungoikoa'ri eskerrak.

ANTON.

Berezkoa da. Jayo zanetik itsua dan bat, etorten da emendik neuritzak abestutera ta saltzera, ta esaten dau eztabela iñoz ezautu begietako miñik.

LIBORIO J.

¡Tira! Ichi daiguzan uskeriak eta guzan mutillaren autuetara. Ez uste izan, mutilla daroadanean esku utzakaz ichiko zaituedazala. Orretan markes jaunak emon deust eskubidea zueri emoteko neure erechian merezi dozuena, Anton adizkidea, ta ni enaz eskumotza.

ANTON.

¡Eskumotza *eskribaua*! Ez, Liborio jauna, ezin ziñistu neike gauza ori; bada, gau baten Bilbo'ko antzokian nengoala, gero eskribau biurtu zan koplakari batek egindako antzerkia ikusten, entzun neutzan agerlari bati ziñoala:

Eskribau zan nire aíta
Almeria'ko urian,
ta ezaugarri eukazan
sei atz esku bakochean.

- LIBORIO J. Ezaututen dot eskribau ori. Jakituna da; baña, orain diran erako eskribau-cho bat da; bada, bastertu dauz anchinako eskribauen berba asko, euren idazkunetan geyen ekanduak eta one-nak ziranak. Ta esaten niñoyan lez, derichat onena izango dala, nik egin daiñuedala orain opari on bat marke-saren izanean, eta gero emongo deutsuet artu bear dozuena mutillaren eli-katua, janzki... eta ganetikoakaitik.
- ANTON. Zuk egin aldeuzkusun opari onena da bakean istea; joan Bilbo'ra ta zaindu zeure osasuna, geñotu etzaítezan.
- LIBORIO J. ¿Ze geñó, gizona?
- ANTON. Etorriko yatzu geñoa markesari agertu bear deutsazunean aldendu dayala daukan icharopena, zartzaroan bera-ganatutea, gaztetan bastertu ta aztu ebana.
- LIBORIO J. Ezin dot ziñistu, Anton adizkidea, echeko atea ichiko deutsazula (zintz egin dan tabako-autsa artu dabenean eta inchaur zugatzena begira jarri da bigarrenez zintz egiteko) barrura sartu nai daben zori onari.

Martin, zara bete bedarregaz sartu da . . . echera, Liborio jauna zugatzena begira jarri danean zintz egiteko, ta Anton'ek bakarrik ikusi dan'.

- ANTON. Egia da sartzen dala, ta Jaungoikoa'k bedeinkatua izan bedi, guk bedeinkatzen dogun lez.
- LIBORIO J. Poztutenez naz, gizona, azkenez bide onera zatozalako. Orain, mutillaren ordez, emongo deutsuet idi-bustarri eder bat.
- ANTON. (Aserre) Liborio jauna, ez aitatu niri jolaskeri orrek neure semeatzaz.
- LIBORIO J. Anton, oraincherik ekandu bear zara Martin'i ez emoten izen ori.
- ANTON. Martin neure semea da, zuk nai ezpadozu-be, ta markesak eroan nai izanarrren, gauza bat bere alde daukalako, gauza ori lotzaggarria da ta munduan egiazko zuzutza balego, gauza ori zigortua izango litzake, ta gizon ori agintari, markes, andiki ta diruduna izan bearrean, izango litzake...
- (Mari-Kruz'ek, agerraldi guztian erakutsi dau senarraren berbak onetsi dauzala, ta Anton'i chaloak joteko gogoz, nekez egonda geidi)
- LIBORIO J. (Aserrez bitarteko sartuta) ¡Anton, egiñu berba markesatzaz bear dan itzaltasunaz!
- ANTON. Itzaltasunez berba egiten dot. ¿Bear yako erakutsi au baño itzaltasun ge-yago, gazte zanean emakume gazte obenge bat galdu ebanari, ta zartzan...

roan, sendi beartzu ta onbidetzu bat naibagepean ipiñi nai dabenari, sendi onek, berak baño biotz onagoa ta egite obeak daukazalako?

LIBORIO J. ¡Anton, gogoratušu garestia izan leite-keala zuretzat, berbeta ta itsukeri ori!

ANTON. Aldendušuz zemayo'k, eurokaz eztozu ezer aurreratuko-ta. Bizkai'tarra naz lau aldietatik, eta badakišu gudarozteko agintari ospetzu batek zer esaten eban...

LIBORIO J. Bai, *Kapitan Andiak*, esan eban erre-zago zala legoyak otzantzea Bizkai'tarrak baño.

ANTON. Bada, ¿nok otzanduko nau ni, lau al-dietatik Bizkai'tarra izanezker?

LIBORIO J. ¿Nok? Eskergetasunak eta geiztotasunak.

ANTON. Orrek ekanduok eztatoz emendik.

LIBORIO J. Orain ikusiko dozu datoza (Deika) ¡Martin! ¡Martin!

BOSKARREN AGERRALDIA TA AZKENA

GUTIÁK, eta ganera, MORROI BAT agertzen da bear dan orduan.

(Martin, Mari-Kruz ta Isabel'ek urtetean dabe echetik alkarren atzean. Mari-Kruz ta Isabel datoza negarrez ta arriturik)

MARTIN. Agindu zalduna.

- LIBORIO J. Jakin eikezu zarala markes jakintzu ta dirudun baten semea...
- MARTIN. (Pozez arriturik) ¡Ni markes baten semea!
- LIBORIO J. Semetzat ezaututen zaituan markeseña, ta bere onestasun eta ondasun guztien ondorengoa egiten zaitu.
- MARTIN. (Pozez zoratuta) ¡Birjiña Santisimea!... ¡Ni markes baten semea!... ¡Gora!... (Jaurti dau gorutz chapela eta saltoka dabil pozez) ¡Ama!... ¡Aita!... ¡Neure arimako Isabelcho! (Guztiak besartetu nai dauz; baña, geldi dago, ikusirik besteak betillunez itzaltzu dagozala, bera bezela pozez egon bearrean)
- LIBORIO J. (Anton'i, garaitzu antzean) Ikusten dozu, Anton adizkidea, mutilla poztu dabela markes izateak eta aitaren milloyak.
- ANTON. (Neketurik) ¡Ai, ikusten dot! (Aserre) ¡Eskerbageko!... (Errukiturik) ¡Ta nire Isabelcho gañoa!
- MORROYA. (Agertu da aringo, guztiz neketutu zelaya zearen, ta gelditu da arriturik ikusi dauzanean baserritarra negarrez ta Liborio jauna pozez) ¡Ísi! ¡Baserritarra negarrez ta eskribaua pozez! ¿Zetan dira antzekoak eskribaua ta kipulea? Negar erasoten dabelako.
- LIBORIO J. (Morroyari) ¡Agur Peru! ¿Zer dakazu?

- MORROYA. Idazki au dakat zeuretzat andreak emonda.
- LIBORIO J. Ekazu idazki ori, ta esayozu zaltzañari, zalpurdia euki dayala gertu, ara noala-ta; ta icharoīsu, aurre-aldean joango zara-ta. (Morroyak, burua makurtuta-agur egin eban, eta joan zan. Liborio jauna, asi zan idazkia irakurten) Jaunak, markesaren idazkia. Nire emasteak idazkazaleko burestunean igarri dau berea dala, ta aringo biraldu deust, orainche bear dodala uste izan dabelako. Entzunſue (irakurten). Zuk, semea ta gurasotzakoatzaz egin dozuzan azterketak jakin dodazanean, gogoratu yat, agindu deutsudan lanean, negar asko egin erasoko deutsazula sendi guztiari, ta bear bada, baita neure semeari be. Eztot nai emon dayozuezan alaitasuna ta eskerrak baño. Neure gaztetako zorakeri edo deungekeri batetik, bete nau damutasunez zartzaroan. Ez erabilli gogortasunik nire semeaz ez gurasotzat daukazanakaz; ezta bere bizi-izaterako, beretzat eta bere ari-mearentzat lagun izateko aukeratu daben ezkongeyarentzat-be. Madrid'en baserrian lez, dirudunen artean eta beartzuen artean lez, jakintzuen eta ezkjakinen artean lez, andien eta chi-

kien artean lez, dagoz onak eta deungeak. Gaztetako deungekeriak damnuta, ona nazala uste dodalako, nai dot onbidea jarraitu zartzaroan. Gauzak, uste dodan lez agertzen badira, egiñuz alegiñak nire semea legeratze-ko; bada, ori da niretzat atsegigarri ta biotzaren bakegarria; ta eskatu yozuez, semeari, bere gurasotzakoai ta bere bular-arreba biotzekoari, izan daitezala nire adizkide zintzoak, eta artu dayela ainbat anei ogerlekoko diru ingi bat, bizi diran echea edertzeko, datorren udan, guztiak ikustera ta besartetzena noanean, egon neñean markes baten echean bezela. (Guztiak biotzikara alaitzuz; baita Liborio jauna-be)

ANTON.

(Martin'eri) ;Ikusten dozu zure aña, markesa ta diruduna izanarreñ, eztala zulako arrokeriduna ta eskerbagea!

MARTIN.

;Eskerbagea ta arrokeriduna ni!
¿Zer da, bada, arroa ta eskerbagea izatea baño, zure alaitasun zoroa, jakin dozunean markes aberats baten semea ta ondorengoa zarala?

ANTON.

Orainche jakingo dozu zer izan dan eta dan nire alaitasun zoroa. (Anton eta Mari-Kruz'i diñotze eskabide antzera) ;Aña! ;Ama! ;Emoidazue mundu onetan idoro neikean zori onena; au da, Isa-

MARTIN.

belcho'gaz ezkontzea, Iñabel eta ni bizi
ta il gaitezan zeuekaz alkar maitetzen
ikasi genduan lekuau!

MARI-K. ta IÑABEL.. (Alaitasun sutzuz) ¡A!

ANTON. (Guztiz alaitzu) Ezkondu, seme neureak,
eta Jaungoikoa'k *bedeinkatu* bedi
zuen maitetasuna, guk bedeinkatzen
dogun bezela. (Besartetzen dira samurta-
sunez guraso ta seme-alabak, eta au ikusirik
Liborio jaunak, esku-zapiaz legortzen dauz
negar maikoak)

LIBORIO J. (Bere buruaz berbetan) ¡Gero, esaten da-
be *eskribauak* eztaukela iñoz biotzi-
kararik! Nik eztakit negar egiten ba-
dot eskribaua nazalako ala aita naza-
lako; baña, egia da negarrez jarri na-
zala emen jazo dana ikusi dodanean.
(Biotzikarea eskuta nairik) ¡Martin adis-
kidea, billatu barik idoro dozun aita
ori bai dala, ona, aberatza ta markesa!

MARTIN. Diruduna ta markesa dalako ez; baña,
ona dalako, gogoratuko dot eta maite-
tuko dot, neure aita onena balitz lez.

LIBORIO J. ¿Gogoratzen dozu zer egingo dozun
zeuganatzen diranean aitaren markes
izatea ta bere ondasun guztiak?


MARTIN. Dakidana da, eche onek eta inguratuten
daben solo ta zugaztiak enabela
ikusiko emendik aldentzen, an bealdean
dagon ezkil-dorrearen kerizpera

betiko atsedentzera noan artean. Bantakadaz, (Isabel, Mari-Kruz ta Anton besarteturik) ta naiko dodaz eurok, euzkel-abestiak diñozanak:

Mendian solo ederra,
soloan eche ona,
echean ogi ta maite,
¡Jesus, au zoriona!

AZKENA





A-
10.